

uk

161. zenbakia / 2009ko uztailaren 30a



DENDAKETAN 08-09

ESKERRIK ASKO!!!

MAPFRE ASEGURUAK · ATXURRA ESTANKOA · EL BAUL DE LA ABUELA · EGOITZA HIGIEZINEN AGENTZIA
ARGALUZA OPTIKA · ALZOLA FARMAZIA · LÓPEZ-LINARES FARMAZIA · TELLETXE LURRIN-DENDA
KEA ESTANKOA · OASIS ANIMALIAK · J.C. PORTERO HARATEGIA

(Argazkia ilusioaren moduan, sinatu dira DENDAKETAN ikasgarriaren zuzeneko ikasleak. Gureko argazkariak egia dute ikasgarria, eta horietatik gik jarraitzen dituzte eta etalotara sartu izaten ikasgarria.)
(DENDAKETAN bereziki arreta eutsiz egiten ikasgarria liburra da. Euskaraz ez dakien dendakariak lehenengo urratsak ematen lagunduko diote ikasgarria da, oinarritzeko. Zerlenak eta Euskaraz bizi!!)



Getxo
UDALA · AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagarmiraga, Maitane Nerekan,
Ainhoa Lorea

FOTOGRAFIA: Asier Mentea

TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartea

MARRAZKILARIA: Dogan Gozel

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



Aldizkari hau Eusko Herriko
herri aldizkari eta euskaraz elkarrean
Topaguneko partidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Eusko Jaurizaritzaren
Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

TRATU TXARRIN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Getxo Jazz.
7. LEHEN ETA ORAIN. Barrikako eskolak.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Julio San Roman.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. San Nikolaseko Pala Txapelketa 2009.
28. ARGAZKIA. Erromoko jaia.
30. BERBETAN. Eva Arguiñano.
34. FOTOGRAFIA. Asier Redondo.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Basartena tabernako II. Film Labur Lehiaketa.
43. MUSIKA. Erromoko Reggae Jaialdia. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Historia de la Revolucion Cubana. Erreseinak.
45. KIROLAK. Itsasoratzea ekimena.
46. ELKARRIZKETA. Ziri-marra arte ikastegia.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Mamarr, Algorta.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Portu Zaharreko Jailetan, 1941.
54. AITORMENAK. Maialen Velasco.

Azala: Asier Redondo



30 Eva Arguiñano

Berbetan

Arguiñanotarrak sutean ederto
moldatzen direla argi dago; Evaren
gozogintzak adurra dariola utzi gaitu.



11 Julio San Roman



54 Maialen Velasco

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*



1.000€-ko
deskontua
aukerako edozein
ibilgailu
erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak barne. Ikustaraziko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea uztean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com



Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Ronaldo

94 milioi euro. Hori da, antza, munduko futbol jokalarirk onenak ‘balio’ duena. Aurten Real Madrilen jokatuko du, eta bere aurkezpenean, Bernabeu estadioan, 80 mila ikusle-zaletu batu dira.

Florentino Perezek diru mordo hori lortu du. Zelan? Espainiako bankurik nagusienek emandako kreditu batzuei esker. Enpresei eta familiei kredituak ukatzen dizkieten bankuek, Madrilgo taldeari bermea eman diote futbol jokalararen fitxaketan inbertitzeko.

Egun hauetan bertan, Espainiako presidente ordeak errepikatu du: edo bankuek ‘txorroa’ (iturria) zabaltzen diote gizarte osoari, edo krisia ez da desagertuko. Tira, zabaldu, zabaldu egin dute. Futbol talde batentzat bada ere. Kontua da: 94 milioiko golak sartzeko gai izango da euren Cristiano? Florentinok baietz uste izango zuen. Harrigarriena ordea, bankuek sinetsi izana da. Ez dakit zuek, baina ni irrikan nago horrelako golak ikusteko...

gu geu

Irailean egongo gara

Bai lagun! Heldu da eguna! Urte osoan itxaroten egon ostean, heldu dira oporrak UK-koontzat. Berba hauek idazten ditugun bitartean burua hondartzan, mendian, parrandan edo etxeko sofan etzanda daukagu. Datorren ikasturtekoa ondo prestatuta utzi, ordenadoreak amatutu, bulegoa txukundu eta atea ondo itxi ondoren, irribarrez joango gara etxera; ondo egindako beharrak utzitako sentsazioagaz. Bai, bai, ondo irakurri duzu. Pozik gaude egindako beharragaz (nahiz eta badakigun perfekziotik urrun gaudela, hurbil egon gura ez dugulako) eta horregatik oporrak merezi ditugula uste dugu. Baieztapen honegaz ados ez dagoena, eta kritika zorrotzak edo aldizkaria aldatzeko proposamenak dituenak, ez zaitez etxean edo tabernan kexa. Ez ditugu horrelakoak gustuko. Kexa guztiak gugana heltzea gura dugu, airean gelditzen denak ez baitu ezertarako balio. Beraz, badakizu; posta arruntez, e-postaz, post-dataz... bide tradizional zein modernoetatik, baina hurrera zaitez gugana. UK ez baita ezer zu barik.

Irailean egongo gara barriro. Eta, agian, sorpresaren bat edo beste hartuko duzu. Auskalo! Misterioari atea zabalik utziko diogu. Irakurle (edo ikusle; izan ere, badakigu gehienak ikusle direla eta lerro hauek ez dituztela irakurriko) maite, ondo pasa!

UK-ko lantaldea

Iritzia

Emakumeen kontrako indarkeriari buruz gizon batek egindako hausnarketa dakarkizugu oraingoan, Unai Brea kazetariarena, hain zuzen ere.

Moda kontuak

Ez dira hamar minutu taberna batean honako elkarrizketa entzun dudala:

-Zelan da orain modan jartzen ari den hori? Gizon batek andre bat jotzen duenean, edo andre batek gizon bat? -Genero-bortizkeria?

«Genero bortizkeriari izena ezarri diogu. Modan ipini dugu, alegia»

lasai hartu nahi izatea; gerta dakiguke, esaterako, “herriaren jakituria” esaten zaion horren adibideren batekin topo egin behar izatea, aipatutakoa kasu.

Tira bada, modaz hasi garenez, azter dezagun denboraldiak zer dakarren: Getxoko Justizia Jauregian sei instrukzio-epaitegi daude, eta bakarra arduratzen da genero- bortizkeria kasu guztiez. Hori da legedi berriaren ondorioetako bat: lehen

-Bai, horixe!

Bai, badakit,

errua nirea da, tabernetan belarriak zabalik edukitzeagatik.

Batzuetan arrisku kirol bihur daiteke garagardo bat

denen artean egiten zutena, orain batek. Irizpide batasunak mesede egiten ei du, beste delitu batzuekin ez bezala. Getxon, leku gehienetan bezala, “ohorea” zein epaitegiri egokitu behar zitzaion zozketaz erabaki behar izan zuten, boluntariorik ez eta. Bilbon, Donostian eta Gasteizen pauso bat harago egin zuten: epaitegi berri bana sortu, genero-bortizkeria lan bakar.

Getxoko epaitegian, azken astean, egunero salaketa bi jaso dituzte. Ez da datu hori estatistika fidagarritzat hartu behar –baldin estatistika fidagarririk existitzen bada-, beste aste batzuetan ez da salaketarik ailegatzen. Baina ausartuko naiz esatera, datu zehatzagorik eskuan ez dudan arren, bai Getxon, bai Bilbon eta bai Amoroton, Amoroton epaitegirik balego, prakak bete lan dabiltzala. Hori da beharbada “modan jartzen ari” izatea. Ez dakigu genero-bortizkeria gehiago dagoen orain, kontu hauek modakoak ez zirenean baino, etxeko zapi lohiak haizatzea gustu txarrekoa zenean baino. Ez dakigu, ez dakigulako zenbat salaketa ez diren ipintzen. Dakiguna da lehen baino salaketa gehiago ipintzen direla.

Urtero-urtero hildako andrazkoen kopuruak bere horretan segitzen duela ere badakigu, ondoegi dakigunez. Legedi berriak ez du gauza handirik lortu, azken batean: teoria ez da txarra, asmo onez beteta etorri zen, baina ez dago bitartekorik epaileen neurriak betearazteko, beraz antzera gabiltza; halaxe entzun nion orain dela gutxi Bilboko epaile inportante bati. Baina gauza bat lortu da, bat bai behintzat, orain hamar minutu geratu zait argi: genero bortizkeriari izena ezarri diogu. Modan ipini dugu, alegia. XXI. mendean badugu, sikiera, trapu zikinak haizatzea, beti bezain kirats nazkagarria ematen badute ere.

Unai Brea

(Argia astekariko kazetaria)



POINTS TALDEA

Entzumena findu eta.../

Txekiatik etorritako jazz musika-banda gaztea dakarkizugu oraingoan. Laukoteak bere errepertoriorik onena aurkeztu du Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 33. edizio honetan. Points talde lehiaketako irabazle suertatu da; hau dela eta, 3.000 euro eta CD-a grabatuko du zuzenean. Gainera Hoeilaarteko (Belgika) eta Eivissako jazzaldietan ere parte hartuko du. Txekiarrek 2007ko udabarrian sortu zuten taldea eta taldekide guztien konposizioak batzen dituzte errepertorioan, besteak beste.

/ Argazkia: Asier Mentxaka

fruten posterra

Zelan eskuratu?
Zatoz UKren bulegora*, eskatu eta eroan!

* bulego ordutegia: 10:00-14:00
Amezti 6, 4. solairua / 5. bulegoa



Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm
Zer dakar posterrak?
Fruten izenak
(euskaraz, gazteleraz,
frantsesez eta izen
latinez) eta eurak
jateko sasoiak.

[lehen]



INDALECO OLAGÜREN

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / BARRIKAKO ESKOLA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kotxea



2008ko otsaila, Amezti kalea (Getxo)

Testua: **Jone Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Agur sagar beltzaren

Oinez joateko falta
zaigunez gogoa,
aitzakia da hotza
edota beroa;
kotxea hartu eta
dena ondo doa,
aparkatzea zail da
ez da arraroa,
baina gure herrian
askoz zailagoa.

Eta autoeskolak
puztuz urtez urte
gurekin aberasten
dira mila putre;
jendea suspenditzen
hainbeste bertute
horri eman zioten
antza, musu truke
leku hor(re)tan nik ere
asmatuko nuke.

Zapaldu beharrea
espaloien ertzak
(e)ta aireratu orde
gas toxiko beltzak,
oinez joaten saiatu
behar dugu behintzat;
osasuntsua baita
hori izan haintzat
guretzat eta gure
ingurukoentzat.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidaliezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat

Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□

□□□□

□□

□□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37

8UK

[talaia]

GETXOPHOTO > Asia Getxotik hurrago irailaren 10etik urriaren 11ra

Guretzat ahoska ezinak diren hainbat argazkilariren izenak izango ditugu Getxon irailaren 10etik urriaren 11ra. GETXOPHOTO Nazioarteko Argazki Jaialdiaren 3. edizioan, Asiara bidaiatzeko gonbitea luzatuko digute. Txina, Hego Korea, Taiwan eta Japoniako argazkilarien lanak ikusi ditugu herriko kale eta plazetan. Begihandi elkarteak antolatzen duen jaialdiak, aurreko edizioetako filosofia bera mantenduko du: kaleak kulturgune eta formatu barrien ezagupenerako bide gisa erabiliko ditu; museoetako eta galerietako hormak apurtu eta kalera aterako dituzte argazkiak, guztion begietara. Guztira, 20 erakusketa jarriko dituzte Getxoko kaleetan, *Asiako fikzioak* izenburupean. Honez gain, jaialdiko lehenengo egunetan, irailaren 11tik 13ra, argazkilaritza ardatz izango duten hainbat ekitaldi egingo dituzte: hitzaldiak, proiektzioak, bertso saioak... Alberto Garcia Alixen lan barria ikusteko aukera ere egongo da. ○

Jaialdian parte hartuko duten Liyu Liubo eta Myoung Ho Lee argazkilarien lanak

saiaz getaria

HOTELA

Roke Deuna 25

20808 Getaria

Gipuzkoa

..haria

...lehengo garaik...

...itsara

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com /Tf. (+34) 943 140 143

UK9

[talaia]

getxo > euskara ikasteko aukera herriko dendarientzat



Joan den ikasturtean “Dendaketan” ekimenean parte hartu zuten lagunak

Getxoko dendariek ez dute euskara alde batera uzteko aitzakiarik. Izan ere, *Dendaketan* ekimen arrakastatsuari esker bezeroei arreta euskaraz egiteko aukera izango dute 2009-10 ikasturtean. Aurten 15 merkatarik egin du ikastaroa. Euskaraz ez dakien dendaritari lehenengo urratsak ematen laguntzen dio *Dendaketan*ek. Datorren ikasturterako izen-ematea irailean zabalduko da. Ikastaroa martitzen eta eguenetan, 08:00-09:00 edo 15:00-16:30 ordutegian izan daiteke. Matrikulak 50 euro balio du eta Getxoko edozein euskaltegitan egin beharko da: Erromoko Udal euskaltegia (94 464 62 99), Algortako Lauaxeta AEK euskaltegia (94 430 47 34) eta Algortako J.A. Agirre euskaltegia (94 460 66 71). Ikastaroa amaitzen duenak, diploma jasoko du baita matrikularen erdia ere. Gainera, merkataritzan euskaraz aritu ahal izateko materiala oparituko zaio eta aldizkari honetan publizitatea egingo diogu. ○

bertsolaritza > 2009ko Txapelketa Nagusia udazkenean egingo da



Orain dela lau urteko Txapelketako finala BEC-en

Lau urte eta gero Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia prest egongo da uda osterako. 44 bertsolarik izena eman du, parte hartzeko aukera izan duten guztiak. 14 saiotako txapelketa izango da eta 2005eko arrakasta errepikatzeko asmoz BEC-en izango da finala. Txapeldun barria nor den abenduaren 13an jakingo dugu eta, agian, Andoni Egañari burutik kendu beharko dio txapela. Antolakuntza taldea urtebetean aritu da Txapelketa Nagusia diseinatzen, eta udabarrian saioak zehazten. Dagoeneko parte hartuko duten bertsolariakaz lehen bilerak egin ditu. Irailaren erdi aldera egingo da Txapelketa Nagusiaren aurkezpena. Ziur gaude Uribe Kostako bertsolari bat baino gehiago ikusi ahal izango dugula Txapelketan, maila handiko gazteak ditugu eta. ○



“Saharar herriagaz bidegabekeria gertatzen dela onartu arren, inork ez du esku hartzen”

Julio San Roman > Getxo Pro-Sahara elkarteko presidentea

Getxoko 15 familiak Saharar kanpamenduetatik etorritako lagun barria daukate etxean. Horietako bat Julio San Romanena da; orain dela 9 urte berak eta emazteak saharar bat etxean hartzeko erabakia hartu zuten lehen aldiz. Gaur egun, Atfal Getxo Pro-Sahara elkarteko presidentea eta idazkaria dira: “*Kontserba laten karabanan laguntzen hasi ginen eta orain arte jardun dugu*”. Denbora eta dedikazioa eskatzen badu ere, gogobetetzea handia da San Romanentzat: “*Garrantzitsutzat ditudan gauzetan ematen dut nire denbora, arazo larriak dituen herria laguntzen, hain zuzen ere*”. Ez du ahazten, saharar herriaren arazoaren erroa politikoa dela: “*Argi izan behar dugu, umeez elikadura eta baliabide gabeziak badituzte eta horien bila gurera etorri behar badira, nazioarteko komunitateak duen jarreragatik dela. Bidegabekeria gertatzen dela onartu arren, inork ez du esku hartzen*”. Beste kultura bateko umea etxean edukitzea esperientzia gomendagarria da: “*Heltzen direnean, bai umeez baita familiakoek ere ohitzeko denbora behar dugu, baina ez dugu sekula arazorik izan. Guk beraiei ematen diegun beste ematen digute beraiek guri*”. Uda amaitutakoan, jaioterrira bueltatzen dira: “*Hasieran faltan somatzen dugu, baina oso argi daukagu umeez euren familiarenera egin behar dutela; elikadura eta gabezi ekonomikoak dituzte, baina emozionalki ez zaie ezer falta*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan
global printers

Reprografía

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •

Erromo eta Portu Zaharra jaietan

Abuztuan ere festak dira nagusi Getxon. Uztailaren 29tik abuztuaren 9ra **Pinueta eta Erromo** auzoetan, **bigarrenak, ostera, abuztuaren 12tik 15era** Portu Zaharrean



Aurten kukaña abuztuaren 14an ospatuko da goizeko 10:30ean

Getxoko jaiek ez dute atsedunik, Saninazioak ia amaitu barik, Erromokoak eta Portu Zaharrekoak dagoeneko, ate joka dauzkagu.

Erromo eta Pinuetako jaiak uztailaren 29tik abuztuaren 9ra ospatuko dira eta ez da ezer faltako, goitibeherak, Reggae gaua edo txistulariak egun guztiak alaitzen...

Egitaraua beti bezain potoloa dakarte getxoztarrek. Horrela, lehenengo egun bietan igel-toka eta petanka txapelketak izango dira Pinuetan. Hilaren 4an, Erromon zehar, goitibehera kalejira izango da. Eguaztenean, indarrez hasiko dira Erromoko jaiak txosnak irekitzea, txupinazoa eta Betagarrigaz. Hurrengo egunean, Def Con Dos igoko da oholtzara.

Hilaren 8an Skarnio edo Bad Sound System taldeak Ska-Reggae gaueko protagonista izango dira eta domekan, jaiak amaitzeko, tanga lasterketa edo txosnen jaia nagusi izango dira.

Algortan barriz, Saninazioek Portu Zaharreko jaiei emango diote txanda. Urtero legez lau egunez, arrantzale jantzia

Kukaña, sokamuturra edo koadrila jaitsiera abuztuaren 12tik 15era Portu Zaharrean

hartu eta festa giroa izango da nagusi itsaso parean. Abuztuaren 12tik 15era bitartean ekintzaz betetako egunak izango dira nagusi. Sokamuturra, Marmitako eguna, herri kirolak, antzarak edo kukaña bezalako itsas-jokoez gozatu ahal izango dugu Portu Zaharrean. o

Ekitaldi batzuk

ERROMO ETA PINUETAKO JAIAK

- **Abuztuak 2, domeka:**
 - Pintxo dastaketa (Pinueta; 08:00)
 - Irintzi lehiaketa (Sta. Eugenia; 16:30)
- **Abuztuak 4, martitzena:**
 - Olinpiada herrikoiak (Cervantes; 16:45)
 - Goitibehera kalejira (Erromo, 19:30)
- **Abuztuak 5, eguaztena:**
 - Txosnak irekitzea (17:00)
 - Pregoia+Txupinazoa (txosnetan; 19:30)
 - Betagarri+Trikizio (Txosnetan; 23:00)
- **Abuztuak 6, eguena:**
 - Afari herrikoia (txosnetan; 21:00)
 - Def Con Dos+Tarugos (txosnetan; 23:00)
- **Abuztuak 7, barikua:**
 - Txikigunea (Xake enparantza)
 - Taloak (txosnetan, 19:00)
 - Punk Rock jaialdia (Sta Eugenia; 23:00)
- **Abuztuak 8, zapatua:**
 - Mus Txapelketa (16:00)
 - Herri kirolak (Cervantes; 20:00)
 - XII Ska-Reggae (txosnetan; 21:30)
- **Abuztuak 9, domeka:**
 - Trikipoteo (Erromon zehar; 13:00)
 - Bertso-saioa (Ganeta; 18:30)
 - Bilbainadak (txosnetan; 20:00)
 - Txosna jaia (24:00)

PORTU ZAHARREKO JAIAK

- **Abuztuak 12, eguaztena:**
 - Koadrila jaitsiera (18:00)
 - Sardina jana (19:30)
 - Haurrentzako zinema (21:30)
- **Abuztuak 13, eguena:**
 - Sokamuturra (13:30)
 - Koadrilen Play-Back-a (22:00)
- **Abuztuak 14, barikua:**
 - Jauzi txapelketa (11:00)
 - Sokamuturra II (14:30)
 - Akelarrea (24:00)
- **Abuztuak 15, zapatua:**
 - Marmitako lehiaketa (12:00)
 - Dantzaldia Dj Bull-egaz (18:00)
 - Erromeria Besterik Gabegaz (23:00)

Apo lasterkariaren

berreskurapena Gorrondatxe hondartzan



Galbidean zegoen apo lasterkariaren espeziea biderkatu da aurten

Azkorriko Gorrondatxe hondartzan dauden apo lasterkarien biziraupena urte-etan kolokan egon ostean, espeziea biderkatu eta berreskurapen fasean dago; joan den urtean, Getxoko Udaleko Ingurune Sailak abiatutako, tokiko mailan aitzindariren, neurri batzuei esker.

Ekimenak galbidean zegoen apo lasterkaria babestea zuen helburu. Izan ere, anfibio mota hau euskal kostalde guztian Gorrondatxe hondartzan eta Hondarribiko Txingudi badian baino ez baita bizi. Apoak begi nini horizontala, marra horia gorputzean eta itxura zimurtsua ditu.

Bestetik, nahiz eta babes ekintza hau Foru Aldundiaren eskumena izan, oraingo honetan, Udal Ingurune Saila aipatutako espeziea babesteko kezkak bultzatuta, duela hiru urte, apoaren egoera azter-

tzen hasi zen eta bere ugalketa zaintzeko ekintza batzuk martxan jarri zituen.

Iazko ekimenen artean, Udalak gune batzuk berreskuratu zituen; iturburu batetik ura jasotzen zuen hondartza albo-ko eta beheko aldea hesiz itxi zuen joan den maiatzaren amaiera arte, espeziearen ugalketa zaintzeko eta urmael artifizial bi egokitu zituen. Heziz itxitako aldean informazio panel batzuk jarri zituen Udalak egindakoa azalduz, eta ingurunearen asmoa hondartzako erabiltzaileen artean ingurugiroarekiko hezkuntza kanpaina egitea zen, apo lasterkaria babesteko aholku batzuk zabaltzeko asmoagaz.

Aipatzekoa da espezie honen desagerepena gizakiok erabiltzen ditugun kotxe, motor edo kuard-ek eragin dutela, garai batean hondartzaraino jaisten baitziren. o

KIROL ASKOTARAKO PISTA GOBELAURREN

Txabarri Zuazo parkea urbanizatzeko lanak hasi dira. Bertan dauden guneak berrantolatu eta parkerako sarbideak aldatuko dira, sarbideak zein ibilbideak irisgarri bihurtzeko. Horrez gain, umeentzako jolas eremua eta helduentzako eremua egokituko dira. Kirol askotarako pista egingo da eta hiri-altzari barriak ere ezarriko dira. Gobelaurre izenez ezaguna den parke honetan gainera, saski-baloian jokatzeko eremua ere atonduko dute.

EZTABAIDA GUNEA AMEZTI KALEAN

Eztabaida Guneak lokala aldatu du. Hasiera batean Euskal Herria kalean lokala bazeukan ere, oraindik aurrera Amezti kaleko 3. zenbakian egongo da. Arduradunek etapa barri bati emango diotela hasiera azaldu dute “aldaketa gutxi izango da, baina zenbait hobekuntzagaz”. Eztabaida gunea hirigunetik hurrago egongo da eta horrela, bertako lagunek jende gehiagorengana heltzea espero dute.

FAMILIA UGARIENTZAKO DIRU-LAGUNTZA

Getxoko Udalak196 familia ugariri diru-laguntza ematea adostu du. Horrela, familia bakoitzak laguntza bakarra jasoko du bere kategoria (kideen kopurua eta ezaugarriak) eta ohiko etxebizitzaren katastroaren balioa kontuan hartuta. Banatuko den zenbatekoa 17.730 eurokoa izango da.

GORRONDATXEK 15 BANDERA URDIN

Gorrondatxe hondartzak hamabosgarrenez jantzi du bandera urdina. Horrela, aurretik ezarritako baldintzak bete izana egiaztatzen da, tartean bainatzeko uraren kalitate ona, garbitasuna, informazioa, ingurugiroko hezkuntza, segurtasuna, zerbitzuak eta instalakuntzak. Bandera urdinak turismoaren garapen jasangarria eta hondartzarako eta gunerako ingurugiroko gestioa lortzea du helburu.

Iñaki Isla > arkitektoa

“Proiektuak kultura bultzatu eta aire modernoagoa eman gura dio herriari”



Iñaki Isla Areetako Geltokia plazan

Getxoztarrak arkitektura ikasi du Nafarroako Unibertsitatean eta duela egun batzuk, bere ikasketa amaierako proiektua aurkeztu zuen. Islak “*Kultura erakartzeko*” eta aire “*modernoagoa*” herriari emateko Areetako Geltokia plazan kultur etxe baten kristalezko eraikina proposatu du. Bertan, auditoriuma, liburutegia, kultur aretoak edo kalera begira egongo litzatekeen erakusgela sartuko lituzke.

—Egin diezagukezu proiektuaren deskribapen laburra?

—Proiektua berez, zati desberdinetan banatutako kultur etxe baten eraikina izango litzateke. Alde batetik, eraikinaren atzeko aldean kokatuta edukiko lukeen liburutegiagaz. Bestetik, plazari begira, kultur areto, auditorium eta erakustaretoagaz. Azken hau erakusleho moduan kalera begira egongo litzateke. Honegaz batera, kafe-relax, administrazio eta herritarrentzako harreta zerbitzua eskaintzen duten guneak ere egongo lirakeke. Eraikinari dagokionez, plazari begira egotea eta guztiz

irekia izatea proposatzen dut; gardena eta forjaketa horizontalez konposatuta, barruko jarduera guztiak ikustea ahalbidetuz. Kristalezko eraikina izango litzateke. Proiektuaren ezaugarri nagusien artean, kanpoko hormetako batean publizitate kartela edo zine pantaila erraldoi bihurtzean datza.

—Zelan bururatu zitzaizun proiektuaren ideia, eta zergatik Areetako Geltokia plaza eta ez beste lekuren bat?

—Ni Areetakoa naiz eta egunero Geltokia plaza honetatik pasatu behar izaten dudanean, desastre hutsa dela ikusten dut, dena

basaz beterik egoten da; beraz, kultura herrira hurreratzeko eraikin modernoagoa egitea otu zitzaidan. Proiektuak gainera, plaza hau eraldatzeko errebindikazioa suposatzen du, leku estrategiko batean lekututa dagoelako, Erromo eta Areeta auzoak lotzen dituelako. Hasiera batean, Bilbora heltzen zen trenaren geltokia zegoen, baina metroaren etorreragaz aipatutako geltoki hau eraitsi zuten, eta bertan sortutako lur zatia urbanizatu barik geratu zen. Horregatik, lur zati hau konpontzea proposatzen dut.

«Lan hau egitea neketsua izan da, baina baita dibertigarria ere»

—Zenbat denbora eman duzu proiektua egiten? Neketsua izan da?

—Urte oso bat egon naiz instalazio kalkulu guztiak lantzen eta estruktura egiten. Bestetik neketsua izan da bai, proiektua egiten nuen bitartean lanean ere ibili izan naizelako praktiketan. Alde batetik proiektuan lan egitea dibertigarria izan da, baina beste aldetik denbora handia eman dut.

—Getxoko Udalagaz harremanetan jarri zara proiektuaren inguruan berba egiteko?

—Oraindino ez, baina saiatuko naiz haue-tariko egunen batean eurekaz harremanetan jartzen. Nire ideia, herritar bezala, proiektu hau aurkeztea da. Gainera, urteak daramate plaza honegaz zer egin pentsatzen, baina zer edo zer proposatu gura badut, lehiaketa bidez izan beharko litzateke. —Hemendik aurrera zer daukazu pentsatuta egitea?

—Atzerrira joango naiz lan bila. Hala ere, nire asmoa ikasten jarraitzea da. Etorkizunari begira masterra egitea ere pentsatzen dut, beste herrialde batzuetan zelan egiten duten behar ikusi gura nuke. ○

Eroan Euskaraz kanpaina

abian da merkatarien eta herritarren arteko elkarreragina sustatzeko asmoagaz



Eroan Euskaraz kanpainak merkatariei eta herritarren arteko elkarreragina sustatzea du helburu

Merkatarien eta herritarren arteko elkarreragina sustatzeko helburuagaz, “Eroan Euskaraz” egitasmoa martxan ipini du Getxoko Udalak. Euskara bultzatzeko sortutako kanpaina honek mer-tzeri, jantzi-denda, zapata-denda, jostailu-denda, kirol-denda eta edergintza dende-tan izango du eragina.

Ekimen honetan, momentuz, 51 dendak hartuko du parte. Horietan, euskaraz erosten duten herritarrak Rist Rast Irabazi izeneko txartela jasoko du eta saria badu, erosketak eroateko poltsa irabaziko du. “*Poltsa, poltsikoan edo poltsan erraz eroan litekeen poltsatxoaren barruan*

dator; beraz, plastikozko poltsen orde-zko oso egokia izan liteke”, azaldu zuen Koldo Iturbe Euskara zinegotziak eskaini zuen prentsa aurrekoan.

Honegaz batera, Euskara Zerbitzuak merkatariei eta ostalariei eskaintzen dizkien diru-laguntza eta zerbitzuak jasotzen dituen katalogoa argitaratu du barriro ere. Guztira, 500 katalogo eta 5.000 esku-orri argitaratu ditu Udalak. Honetaz gain, “Dendarik Denda” informazio orriaren lehenengo alea aurkeztu du Euskara Zerbitzuak merkatariei zuzenduta antolatu edo sortzen diren ekimen guztien barri eskaintzeko. ○

SAN LORENZO AZOKA ALGORTA ERDIGUNEAN

Urtero legez, San Lorenzo eguneko azokan Euskal Herriko baserrietako produktuak erosteko aukera izango dute getxoztarrek Algortako San Nikolas, Biotz Alai eta Getxo Antzokiko plazetan: barazkiak, fruta, gazta, pateak eta ahatekiak, ogia opilak, ez-tia, sagardoa eta txakolina; landare, apaingarriak, sendabelarrak, txarkuteria, artisau kontserbak eta beste hainbat gai ere. Goizez 10:00etatik aurrera, trikitilari eta gaitari taldeek giro-tuta egongo da. Gainera, txosnak ere egongo dira taloa txorizoagaz, sagardoa eta bestelako produktuak dastatzeko. Azkenik, Biotz Alai abesbatzaren kontzertu tradizionalagaz gozatu ahal-ko da.

NAZIOARTEKO FOLK, HABANERA ETA ITSAS-ABESTI JAIALDIAK

Areetako Geltokia plazak jaialdi bi hartuko ditu irail-ean. Alde batetik hilaren 3tik 6ra ospatuko den XXV. Nazioarteko Folk Jaialdia. Bertan, talde gazteak, sona handiko artistak, umeentzako goizeko kontzertuak eta kaleko bandak batuko dira. Horrela, beste herrialde batzuetako musika eta kulturak kolorez eta doinu bereziz jantziko dituzte kaleak. Gainera, hainbat jarduera egongo dira, Bidezko Azoka, erakusketak, ikastaroak eta tailerrak, besteak beste. Horiek beste kulturekiko elkartasun konpromisoa eta horien ezagutza sustatzeko asmoz. Bestetik XXIII. Habanera eta Itsas-Abesti Jaialdia hilaren 11tik 13ra, arrastiko 20:00etan hasiko dira.

ERDI AROA ALGORTARA ITZULIKO DA

Datorren irailaren 18tik 20ra bitartean Algortako Basagoiti etorbidea, San Nikolas, Biotz Alai, Getxo Antzokia, Tellagorri eta Satistegi plazak Aintzin Arora egingo dute jauzi, VIII. Erdi Aroko azokagaz. Hirigunea artisau produktuak beteko dituzten postuak eta Erdi Aroko lanbideetako tailerrek beteko dute.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA

Jose Luis Diaz > Leioako Altzaga Xake Kirol Elkarteko presidentea

“Oso pozik gaude, dagoeneko bost aldiz igo gara mailaz Altzaga Xake Kirol Elkartea sortu genuenetik”

2005ean sortu zen Altzaga Xake Kirol Elkartea eta dagoeneko bost aldiz igo da mailaz. Hasiera batean eskolaz kanpoko jarduera bezala sortu zen taldea.

—Zelan jaio zen Leioako Altzaga Xake Kirol Elkartea?

—Leioako Altzaga ikastolak guraso elkarteari xakea eskolaz kanpoko jarduera moduan sar-tzea proposatu zigun; guk irakaslea ipini genuen eta umeak jokatzeko hasi ziren. Denboragaz ikusi genuen taldetxo bat nabar-mentzen hasi zela, nire semea barne. Bizkaiko txapeldunak izan dira behin baino gehiago-tan, baita Euskal Herrikoak ere. Ikastola amai-tu zutenean, Barandiaran institutuan eskolak ematen jarraitu zuten, baina Leioan xakean egiteko elkarterik ez zegoenez, 2005ean gurea sortu genuen.

—Zergatik xakea eta ez beste kirolen bat?

—Ikastolan proposatu zigutenean ideia oso ona zela iruditu zitzaigun; alde batetik, esko-laz kanpoko jardueretan ematen diren klasee-tan ohikoaz aldentzen delako, eta bestetik, oroimena, adiskidetasuna edo kontzentrazioa garatzen dituelako.

—Normalean komunikabideek ez digute xakeari buruzko informazio lar helaraz-ten, zergatik dela uste duzu?

—Jendea futbolak, adibidez, gehiago mugi-



Alvaro Diaz, Aritz Zabala, Mikel Sanz eta Ander Gonzalez dira Altzagako jokalarietako batzuk

tzen duelako. Real Madrid taldeak, dirutza izugarria ordainduta, Ronaldo bezalako joka-laria fitxatzen badu, hedabide guztiak albiste beraren inguruan ibiliko dira; Ronaldo bera oporretan Portugalera doala, albistegiak barri horregaz irekitzeko gai dira. Magnus Carlsen 18 urteko xake jokalaria oso ona eta azkarra denik ere, ez zaigu axola. Futbolak gero eta leku handiagoa hartzen du, gehien saltzen duena delako eta komunikabideek arreta osoa eskaintzen diotelako. Xakeak ez du hain-

beste jende mugitzen, zaletasuna guztiz desber-dina da.

—Zelan izaten dira xake txapelketak eta nolakoa izan da aurtengo denboraldia?

—Bizkaiko Federazioak antolatzen duen ligan, partidak jokatzeko dira, eta sailkapeneko lehenengo hiru jokalariek mailaz igotzen diren bitartean, azken hirurak mailaz jaisten dira. Guretzako denboraldia oso ona izan da, lau urtetan lau aldiz igo garelako mailaz eta aurtengoa bosgarrena delako. ○

Abuztuan ere Leioa jaietan

Santimami eta San Bartolome auzoak jai giroan murgilduko dira hilaren 17tik aurrera



San Bartolomeko jaiak aurtun abuztuaren 21etik 24ra

Tradizioz betetako jaiak dakarzkizugu zenbaki honetara. Izan ere, datorren abuztuaren 17tik aurrera, alde batetik, Leioako Santimami auzokoetan eta beste-tik, San Bartolomekoetan festa giroa izan-go da nagusi.

Santimamiren kasuan, hilaren 17an eta 18an ospatuko dira eta idi probak, umeentzako jokoak edo erromeria Txi-txarrillo taldeagaz izago dira lehenengo eguneko jarduera nagusiak. Domekan aldiz, igel-toka txapelketa, herri bazkaria, Patxin eta Potxin pailazoak edo umeen-tzako txokolatada nabarmen ditzakegu.

San Bartolomeko jaiei dagokienez, datorren abuztuaren 21etik 24ra dantzak, idi-probak edo mota guztietako txapelke-

tak izango dira ekintza nagusienak. Horrela, barikuan, lehenengo egunean txupina jaurtiko dute eta ondoren koa-drilek moztorro desfilea egingo dute Gu-retzat fanfarreak girotuta. Gauean, Triki-zio taldeak dantzan aterako gaitu plazara. Zapatuan, arroza gustuko duenak paella erraldoia dastatzeko aukera izango du, arrautzopil txapelketagaz batera. Egun berean Egan taldeak gau-jaia girotuko du. Hurrengo egunean, marmitako, idi pro-bak, disko-festa edo mus txapelketa izan-go dira protagonista.

Jaiak ondo amaitzeko, azken egune-an, nagusientzako luntxa, haurrentzako margo lehiaketa eta eskulan tailerra edo txokolatada izango dira. ○

ORAINDIK AUERRERA ONA TXARTELA EGITEKO, OSASUN ZENTROETAN

Herri-erabilera anitzeko Osasun Txartel Elektronikoa barria egiteko epea amaitu da Leioan, baina gogoan izan behar da epe hau amaitu ostean, edonork eskura dezakeela ONA txartela osasun zentroetan. Hiru hilabete iraun du ONA txartela eskuratzeko kanpainak, eta aipatu beharra dago duela gutxi, erabilera anitzeko osasun txartel hau tramitatu duenak etxean jasoko duela.

AURRESKU TXAPELKETA ONDIZKO JAIETAN

Leioako auzoetan jaiak izaten dira nagusi irailan ere, horren adibide dira Ondizen ospatzen direnak. Horrela, hilaren 4tik 13ra bitartean, egitarau oparoa eta adin guztiei zuzendutakoa da topa dezakeguna. Lehenengo egunean esaterako, play-back txapelketa, poteo musikatua, moztorro gaua edo erromeria izango dira jarduera nagusiak. Hurrengo egunean barriz, herriko dantza taldeen emanaldia edo sardina janak beteko dute programazioa. Irailaren 6an, XLIX Bizkaiko Aurresku Txapelketa burutuko dute arrastiko 19:00etan. Hilaren 13an, bizkaitar erara bakailao txapelketa, igel-toka txapelketa, herri kirolak edo Leioako Musika Bandak emanaldia eskainiko du.

1.5 KILOMETROKO BIDEGORRIA LEIOAN

Leioak bere lehen bidegorria ireki du hirigunean. 1.5 kilometroko luzera duen bide barria bitan banatuta dago, Avanzadako alde bietan hain zuzen ere. Adarkadura nagusia Elexalde parkean hasten da eta 1.2 kilometro ditu, honek bulebar guztia zeharkatzen du Pinosolo eta Artazako parkeetara helduz. Bestalde, Ikastetxe Ingelesko errotondan beste 250 metroko zatiaren bidebanatzea hasten da, Basañez auzoan akabuko zatia eginez.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Toribio Romero > Sasyma enpresako langile kaleratua eta CCOOeko ordezkaria

“Epaileak justizia egitea espero dut, baita nire kaleratzea baliogabetzea ere”

Sasyma enpresak joan den apirilean, Toribio Romero kaleratu zuen lan baldintza txarrak pairatzen zituzten hiru errumaniarren egoera salatzeagatik. Orain bere lanpostua buelta diezaion eskatzen dio epaileari.

—Zer da zehazki salatu zenuena?
—Duela urte bi, Sasyma enpresak Machin kontratagaz harremanetan jarri eta errumaniarrak gure enpresara lanera ekartzeko proposamena egin zion. Lanean hasi zirenean guk langile hauen paper guztiak eskatu genizkion enpresari, eta konturatu ginen txostenak legalitate aldetik ez zirela oso fida-garriak. Beraz, gure zalantzak argitzeko CCOO sindikatuagaz harremanetan jarri, eta urtebete eman zuen kasua ikertzen. Denbora horretan istripu larria gertatu zen, eta konturatu ginen Errumaniako langile horrek ez zeukala mutuara jotzeko eskubiderik; beraz, enpresagaz harremanetan jarri eta langileen egoera zein zen azaldu genion, baita era legalean jartzea eskatu ere.
—Zer nolako lan baldintzak pairatzen zituzten hiru langileek?
—Txarrak, 330 euroko soldata jasotzen zuten eta orekatzeko, dieta izugarriak jartzen zizkieten. Gainera ez zeukaten inolako prestaziorik istripu baten aurrean, eta egu-



Toribio Romero

nean 16 ordu lan egiten zuten.
—Zergatik bota zaituzte kalera?
—Lan baldintzak salatu genituenean lanera-ko inspektore batek deitu eta Sasyma, Machin eta gu bildu gintuen gertatutakoa azaltzeko. Sei hilabere pasa ostean, ikuskariak txostena helarazi, eta bertan bai enpresa, bai kontrata zigortzen zituela azaltzen zen. Hau dela eta, langile errumaniarrak eroan zituzten, eta nik kaleratzeko agindua jaso nuen. Enpresak gezurrezko informazioa helarazi dudala leporatzen dit, eta horregatik kalera-

tu nauela, baina hori ez da egia, bestela inspektoreak ez zuen zigortuko.
—Zein da zure oraingo egoera?
—Oso txarra, 56 urte ditut, hipoteka ordaintzen ari naiz eta seme-alabak dauzkat. Hilaren 23an epaiketa izango da eta espero dut epaileak justizia egitea. Kalera bota nindutenetik galdera bat darabilt buruan bueltaka: Enpresa santzionatu badute, zergatik tratatzen naute gaizkile moduan? Hori da epaileak erantzun behar-ko didana, nire kaleratzea baliogabetuz. ○

San Lorenzo jaiak

Abuztuaren 6tik 10era jai giroa izango da nagusi Astrabuduko kaleetan zehar



Bost egun iraungo dute Astrabuduko jaiak

Axpurun hasiko den koadrila eta karroza jaitsierak jaiei ongi etorria emango die arrastiko 19:00etan. Izan ere, Astrabudua San Lorenzo egun handira arte, hilaren 10era arte, jai giroan murgilduko da. Horrela, lehenengo gauean, Josu Murueta plazan izango den dantzaldiagaz eta Barralibre taldearen kontzertu-agaz, besteak beste ondo pasatzeko aukera egongo da.
Hurrengo egunean txikienak izango dira goiztiarrenak, beraientzako prestatutako Txikilekuagaz. Bertan, umeek, marrazkiak egin edo puzgarriakaz jolastu ahal izango dute. 12:00etan kanoak eta gymkhana 16:30ean nabarmen daitezke Nagusien Olinpiaden barruan. Gauean, Set eta Gatibu taldeak izan-

go dira Mendiguren plazan 23:30ean. Zapatuan, barriz, Marmitako lehiaketaren txanda izango da, III Mus Txapelketa eta Hotsak Hezurretan eta Sidecars taldeek joko dute gaueko kontzertuetan. Erromeria gurago duenarentzat Akerbeltz taldeak Mendiguren plaza girotuko du. Domekan, sukalki lehiaketa, idi probak, karaokea, sardina jana eta ber-bena Bizargorri taldearen eskutik izango dira.
San Lorenzo egunean eta jaiei agur esateko, tortila lehiaketaren txanda izango da, Udal Musika Bandaren ekitaldia, arkume dastaketa edo Peli Almuderen umorezko ikuskizunagaz batera. Jaiei amaiera emateko su artifizialek zerua kolorezko irudi abstraktuz pintatuko dute 23:45etik aurrera. ○

GAZTEEN ARTEAN ELKARKIDETZA BULTZATZEKO EKIMENA

Esperientziak eta ezagutzak beste gazteakaz trukatzeko helburuagaz, Erandiok 15 eta 17 urte bitarteko gazteak Frantzia, Grezia edo Alemaniako gazteakaz elkarbitzeko ekimena antolatu du irailaren 4tik 11ra bitartean. Bertan parte hartuko dutenek ingeles apur bat jakin beharko dute, eta bizikidetasunean ezin izango dute aurretiazko esperientziarik izan.

ARRIAGA ETA ALTZAGA LOTZEN DITUEN ERREPIDEKO LANAK

Udalak Altzaga eta Arriaga auzoak lotzen dituen errepidea hobetzeko lanak egingo ditu. Horrela, errepideari zabalera handiagoa eman eta jasaten duen trafikora egokitu gura dute. Bide hau gainera, Erandioko hirigunetik Avanzadara doan bakarra da herrian. Horregatik, egunero kotxe eta autobus kopuru handia igarotzen da eta estutasuna, dituen bihurguneek eta izaera aldapatsuak norabide desberdinean doazen ibilgailu bik bat egiten dutenean zirkulazioa zailtzen dute.

ERANDIO MUSIKALEAN JAIALDIA

Zazpigarren urtez, Trabudu Dantzari Taldeak musika kalera atera eta Astrabuduko bazter txikienean ere doinu alaiak eta euskaldunak entzun ahal izango dira abuztuaren 8an, zapatuan. Horrela, 18:00etan Patxin eta Potxin pailazoek Josu Murueta plazan, txikientzako ikuskizuna eskainiko dute; arrastiko 19:00etan, barriz, Karaokeagaz kantatzeko aukera egongo da; ordu erdi beranduago, 19:30ean Kalejirak Astrabuduko txoko guztiak girotuko ditu gaitari edo txistulariakaz. Amaitzeko, iluntzean, Billbainadak alde batetik, eta Salamandras musika taldea bestetik, Astrabuduko oholtza gainera igoko dira.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

Basolanak

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

• Zuhaitz landaketa
• Inausketak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**
www.arlan.biz

PRO JUNIOR III. SURF
LEHIAKETA ATXABIRIBILEN

Uda honetan, Atxabiribil hondartzak Sopelana Pro Junior III. Surf Lehiaketa hartuko du datorren uztailaren 30etik abuztuaren 2ra bitartean. Proba garrantzitsua da, parte hartzaileek Munduko zirkuiturako probarako puntuak eskuratuko dituztelako. Txapelketa egunero goizeko 09:00etan hasiko da.

TURISMO BULEGO
BARRIAK ATEAK IREKI DITU

Larrabasterrako metro geltoki ondoan dagoen turismo bulegoak (Loiola Ander Deuna kalea z.g.) ateak ireki ditu. Aipatutako bulegoaren udako ordutegia ondokoa izango da: astelehenetik domekara, jaiegunak barne, goizez 09:00-14:00, eta arrastian 16:00-19:00 ordutegian.

LASTERKETA NUDISTA
BARINATXEN

Datorren irailaren 19an, zapatuan, Barinatxe hondartzak, urtero bezala, lasterketa nudista hartuko du, parte hartu gura duen orori zuzenduta. Lasterketa goizeko 12:00etan izango da.

AIREKO INAUTERIA ETA
KALE ANTZERKI ZIRKO
JAIALDIA IRAILEAN

Ikuskizun koloretsuak eta bereziak izango dira nagusi irailean. Alde batetik, aireko inauteriagaz eta bestetik, Kale antzerki animazio eta zirko jaialdiagaz. Lehena ekimen bitxia dugu, hegazkinetik jauzi egin ostean, zerua moztzori koloretsuz jantzitako pilotuek hartuko baitute irailaren 6an, domekan. Bigarrenak ordea, zerutik jaitsi eta Sopelako kaleetara egingo du salto hilaren 18tik 20ra bitartean. Bertan leku guztietako antzerki taldeek beren errepertorioa Sopelako bazter guztiak alaitzeko ikuskizunak antzeztuko dituzte.

Nekazal azoka

eta sukalki txapelketa izango dira aurtengo Euskal Jaiaren jarduera nagusienetako batzuk



Umeek txalaparta jotzeko aukera izango dute Euskal Jaiaren lehenengo egunean

Urtero bezala, eta uda ederto batean amaitzeko Sopelak Euskal Jaia antolatu du. Aurten irailaren 12tik 13ra bitartean ospatuko da. Horrela, egun biz, gure lurraldeko tradizioa izango da protagonista nagusia.

Lehenengo egunean, udaletxe parean, nekazal azokagaz bertoko produktuak erosi eta dastatu ahal izango ditugu, goizeko 10:00etatik aurrera. Honegaz batera, txalaparta erakusketa eta jotzeko aukera egongo da plazan goiz guztian zehar. 13:00etan barriz, gazta, barazki, lora eta fruta txapelketen

sari banaketa egingo da.

Hurrengo egunean aldiz, goiz guztian zehar Zirri-Marra elkartearen eskutik margo lehiaketa egongo da sukalki txapelketagaz batera. Jarduera hauek biak trikitixak alaituko ditu. 12:00etan, txistu kontzertua entzuteko aukera izango dugu eta 13:00etan aipatutako sukalki txapelketaren sari banaketa burutuko da. Arrastian, 17:00etan margo lehiaketaren sariak banatuko dituzte eta 18:00etan, aurtengo Euskal Jaiagaz amaitzeko, Betizu Disko Jaiagaz dantzatzeko aukera izango dute txikienek. ○

Begoña Hervas > Uribe-Bazterra Bandako zuzendari zena

“Jardun dugun leku guztietan arrakasta handia izan dugu”



Sopelako Uribe-Bazterra Musika Banda

Sopelako Udalak Uribe-Bazterra Bandari dirulaguntza handiagoa ez ematea iragarri du, musika taldearen desagerpena suposatuz. Bandaren zuzendari zenak, bere ustez, desagerpenaren benetako arrazoia zein izan den azaldu digu.

—**Konta diezazkigukezu Uribe-Bazterra Bandaren nondik norakoak?**

—Udalaren laguntzagaz, 2000. urtean sortutako banda da eta erabili ditugun musika tresna guztiak kontsistorioak berak utzitakoak izan dira. Taldea gaztea da, bai prestakuntza, bai bertako kideen aldetik, bataz beste-ko adina 25 urtekoa da; 40 lagunek osatzen du. Aipatu beharra dago, Banda honek hasieratik harrera izugarria izan duela eta jardundako leku guztietan arrakasta handia izan duela. Plentzian, Algorta, Aretxabaletan, Euskalduna Jauregian edo Aiaran, aritu izan gara besteak beste.

—**Zein izan da Udalak bandari diru laguntzak kentzearen arrazoia?**

—Ekainean amaitzen zitzaigun urte birako

kontratua; horregatik, otsailetik, alkategaz berba egiten saiatu izan gara, baina arrakasta handirik barik. Azkenean, kontratua amaitu baino hamabost egun lehenago, kultura zinegotziak deitu zigun, bandak aurrera egiteko nahikoa aurrekontu ez zegoela esanez. Aldi berean, Udaleko webgunean, aurten, aurrekontuen %7ko gehikuntza izan dutela azaltzen zela ikusi genuen.

—**Beraz, zuen ustez, zein izan da arrazoia?**
—Guk entseatzeko lokala geneukan eta orain urtebete bertatik atera gintuzten.

«Aretxabaleta, Aiara edo Euskalduna Jauregian, aritu gara, besteak beste»

Orduan, berregituratuta zegoen eraikin batean sartzea pentsatu zuten; bertan, musika ikastaro batzuk egitea ere pentsatuta zegoelarik. Guk hura ikusi eta inauguratu ere egin genuen. Baina bertan, musika eskolak ematen zituenak ez gintuen oso gogoko, eta lehenengo unetik gure banda ez zela lokal horretara sartuko esan zuen. ○

LAIKAK
Taberna

Bentatu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- *Taldeak, enpresak eta partikularrak*
 - *Eskolaz kanpoko ekintzak*
 - *Maila guztiak*
 - *Ingelesa 3 urtetik aurrera*
 - *Talde txikiak*
 - *Ingalaterran egonaldiak*

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- *Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa*
- *Irakaskuntza eta hezkuntza*
- *Informazioa eta partaidetza*
- *Eleaniztasuna*
- *Esperientzia eta barrikuntza*

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

HAINBAT EKITALDI
SANTODOMINGOTAN

Astebetek baino ez ditu Santa Ana jaiak eta Santodomingoak bereizten. Aurreko zenbakian Berangoko jaien denboraldi hasieraz berba egin genuen, oraingoan amaieraz, abuztuaren 1etik 5era bitartean iraungo duten Santo Domingo jaiakaz. Berangoko jai nagusien hasiera, esan bezala, hilaren 1ean izango da, zapatuan eta umeentzako parkea, Herri Kirolak eta dantza Iñaki eta Ainhoaren eskutik, izango dira nagusi. Hurrengo egunean ordea, Tipi-Tapa pailazoak, bitsaren jaia, *Zircus Mircus*, haurrentzako ikuskizuna, edota sardina janaz gozatu ahal izango dugu. Martitzenean, barriz, Simon Otxandategi taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du goizean; arrastian, ostera, pilota partida jokatu da eta Gaurko Gazteak fanfarrearen eskutik dantzarako aukera. Azkenengo egunean, hilaren 5ean, umeentzako ludoteka, txokolatada, Gorriti jaialdia, idi probak eta DJ Xaibor izango dira jarduera nagusiak.

SANTA ANAKO
AUDITORIOKO LANAK

Berangok auditorioko lanak hasi dira dagoeneko. Eraikin barria Santa Ana auzoan egongo da, eskola zaharrak dauden lekuan. Areto honek lehen eskaini ezin ziren formatu ertain eta txikiko ikuskizunak programatzea ahalbidetuko du. Bestetik herriko elkarteei zerbitzua eskainiko die lehenengo solairuan egongo diren batzartzeko bost aretoakaz. Auditoriumeko atea irekiko ditu urte honen amaieran.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T. 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) 8 ETA 9 EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Sabino Arana oinezkoentzat
Hirigunea indartzeko helburuagaz Berangoko kale nagusiaren zati bat oinezkoentzat izango da



Sabino Arana kalea, metro geltokiaren parean

Datozen urteetan, Berangoko errepide nagusiaren zati bat, Sabino Arana kalean, oinezkoentzat baino ez da izango. Planteamendu honek trafikoa hirigunetik desgertarazteko, zuzen industrialdera eroango gaituen bidea aurreikusten du. Horrela, Udalak tabernetako terrazak nagusi izango dituen kale nagusia sortu gura du. Etorkizuneko kaleagaz merkataritza indartuko da; beraz, hirugarren sektorearentzat onuragarria izango da. Merkataritzarako beharrezkoak diren ibilgailuak eta auzokideen kotxeak baino ezin izango dira sartu; beti ere, oinezkoek lehentasuna dutelarik.

Lan hauek, eta duela hiru urte eraikitako Uribe Kostako korridoreak errepide honen eraipen osoa suposatzen du. Ordura arte, errepide honek eskualdea lotzen zuen. Baina Larrabasterrarako metroko bidearen gainean zegoen zubiaren eraistiaz geroztik, ez du jarraitzerik. Zubi hau Berangoko Sabino Arana kaleko errepideagaz lotuta zegoen eta. Bestalde, Udalak hirigunea Kurtze auzoagaz banatzen dituen trenbideko barrerak kendu gura ditu. Horretarako, kultur-ekintzak ere jasoko dituen kirol-instalazioa eraikiko du. Lokal barriak aipatutako gunek plaza bategaz lotuko ditu. ○

Gorlizko Turismo Bulegoa > Bisita gidatuak

Ibilbideetan, Gorlizko baliabide turistikoak erakusten ditugu batez ere



Aitz Oleaga eta Ziortza Arrieta, Turismo Bulegoko langileak

Udagaz batera izendapen berezia heldu zitzaion Gorlizko Turismo Bulegoari. Kalitate Qa lortu du, egindako lanagatik eta emandako zerbitzuengatik. Azken horietako bat, taldeentzat egiten dituzten bisita gidatuak dira. Herria ezagutzeko aukera ludikodidaktikoa eskaintzen dute, bertokoentzat zein kanpotarrentzat.

—Zer suposatuko du Turismo Bulegoarentzat Kalitate Qa izateak?
—Joan den urtean hasi ginen Qa lortzeko behar egiten. Bulego barria zabaltu genuen, bezeroentzako erosoagoa dena. Alde batetik, izendapenak ospea ematen digu eta bestetik, beste turismo bulegoengandik ezberdintzen gaitu. Beharra ondo egiten dugula ziurtatzen die bezeroei.
—2006tik bisita gidatuak egiten dituzue. Zer erakusten duzue horietan?
—Gorlizko baliabide turistikoak erakusten ditugu batez ere. Naturari begira

dagoen herria da gurea, eta horretan egiten dugu indar gehien; nahiz eta beste esparru batzuk ere lantzen ditugun. Gorlizko Eliz Enparantzatik hasten da ibilbidea; bertan azalpen orokorra ematen diegu. Ondoren, Itsasbide kaletik jaisten gara. Bidean herriko eraikin garrantzitsuei eta historiari buruz berba egiten diegu: Andra Mariko baseliza, Kasinoa, Erietxea... Hondartzako lanak direla eta, ibilbidea aldatu behar izan dugu.

«Izendapenak, beste turismo bulegoengandik ezberdintzen gaitu»
—Zer nolako jendea hurreratzen da?
—Orain arte inguruak hurreratu zaizkigu batez ere; askotan ondoan daukagunaren historia ere ez dugu ezagutzen. Horrez gain, katalanak, frantsesak eta euskaldunak ere hurreratzen hasi dira.

Informazio gehiago: 94 677 43 48



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15





Teléfono: 840 701 128

Ajuria
taberna



Andres Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



VIEJO CAFE
kopak eta giro jatorra
Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03
ALGORTA

ABIAN DA URDULIZKO II. ARGAZKI LEHIAKETA

Urdulizko II. Argazki Lehiaketan lanak aurkezteko epea ireki dute. Aurreko urtean bezala, argazkien gaiak udalerriaz erlazionaturako edozein alderdiri buruzkoa izan behar du. Hiru argazkik osatutako sorta egin behar da, zuri-beltzean edo koloretan. Lanak Urdulizko Kultur Etxean aurkeztu behar dira azaroaren 28a baino lehen. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du.

BABESTUTAKO 89 ETXEBIZITZA BARRIKAN

Bizkailur enpresa publikoa izango da Barrikako Elexalde auzoan egingo diren babes ofizialeko 89 etxebizitzaren proiektua aurrera eramatearen arduraduna. Udalaren egitasmo nagusietakoa da. Guztira 571 etxebizitza egingo dituzte; horietatik, %40 babes ofizialekoak izango dira. Juan Jose Ezpeleta Barrikako alkateak, ahalik eta azkarren egin gura ditu babes ofizialeko etxeak, horregatik izapideak azkartzen saiatuko dela aurreratu du.

2010ERA KO HAURRESKOLA ZABALIK

Lehen hezkuntzako etxean egongo da 2010eko urtariletik aurrera Plentziako Haurreskola. Herrian egongo den 0-2 urte arteko haurrentzako lehenengo zentroa izango da. Eraikitze lanak ekainean hasi ziren eta abendurako amaitu gura dituzte. Udalak 722.000 euro inbertitu du egitasmo horretan.

PLENTZIA

Antolintxu abuztuaren 28an igoko da balkoira



Abuztuaren 28tik irailaren 2ra ospatuko dituzte 2009ko sanantolinak

Eskualdeko azkenetakoak dira Plentzia-ko San Antolin jaiak. Aurten, abuztuaren 28an igoko dira Antolintxu eta Madalentxu udaletxeko balkoira eta irailaren 3an agurtu-ko gaituzte datorren urtera arte. Zazpi egun horietan, ez da aspertzeko betarik egongo.

Barikuan Andra Marirako igogeragaz eta ohorezko aurrekuagaz hasiko dira jaiak. Gauean, Dantzaldi Zurian parte hartuko dute herriko koadrilek. Zapatuan Marmita-koak Astilleroa usain gozoz beteko du; 22:30ean Plentzia Reggae Gauaren barruan,

Akatz, Revolutionary Brothers, Aspo eta Bumclap Teatchers taldeen musika entzun ahal izango da. Hurrengo egunean, Gazte Eguna ospatuko dute; Alambrada, Non Ote eta Egurra eta Kito taldeen kontzertu-akaz amaituko dena. 31n eta 1ean, nagusi zein umeen mozorro eta play-back lehiake-tak izango dira protagonista. 2an, San An-tolin egunean, artisautza azoka eta meza nagusia egingo dute, eta gauean dantzaldia egongo da Astillero plazan. Jaiak suzko ze-zenagaz amaituko dira. o

Abu. 1 - Ira. 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Olaia San Miguelen pinturak.** Eraskusgelan. Abuztuaren 15etik 22ra. 19:00-21:00.
► **Aitor Renteriaren akuarelak.** Eraskusgelan. Irailaren 1etik 6ra. 19:00-21:00.

PLENTZIA

► **Grandes exploradores.** Plentziako Butroiko Plasentia museoan. Urrira arte. Eguaztenetik domekara, 11:00-14:00. Barikuan eta zapatuan 17:00-20:00.

MUSIKA

GETXO

► **San Lorenzoko Kontzertua, Biotz Alai abesbatzaren eskutik.** Biotz Alai plazan. Abuztuak 10, astelehena. 22:00etan, sarrera doan.
► **XXV. Nazioarteko Folk Jaialdia.** Talde gazteak, sona handiko artistak, haurrentzako goizeko kontzertuak eta kaleko bandak batuko dira Areetan. Irailaren 3tik 6ra.
► **XXIII. Habanera eta Itsas-Abesti Jaialdia.** Areetako Geltokia plazan. Irailaren 11tik 13ra. 20:00etan.

ERANDIO

► **VII. Erandio Musikalean.** Astrabudua. Abuztuak 8, zapatua. Arrastiko 18:00etatik aurrera, karaokea, kalejira edo pailazoak, besteak beste egongo dira

ANTZERKIA

SOPELANA

► **Kale Antzerki, Animazio eta Zirko Jaialdia.** Sopelan zehar. Irailaren 18tik 20ra.

Renault Alpine kotxea ere ikusgai egongo da erakusketan

► Erakusketa

Rally-Auto klasikoak

Datorren irailaren 6an Plentziako Eleiz enparantzak Rally-Auto Klasikoen erakusketa hartuko du. Bertan Seat 124 FL, Lancia Fulvia, Renault Alpine A 110, Porche 911 edo Simca Rally III bezalako kotxeak egongo dira ikusgai, besteak beste. Erakusketak 10:00etan irekiko ditu ateak. 11:30ean ibilbide laburra egingo dute inguruko herrietatik. Ordubete beranduago Jose Luis Etxaberi omenaldia egingo zaio, bertan kotxeak ekarri dituzten gonbidatuak eta 70 eta 80ko hamarkadan Etxabegaz lehiatu zirenak agerraldi itxia batean egongo dira, horien artean Anton Beroiz, Estevan Garcia Campijo edo Fernando Lezama izango dira, besteak beste.

• **Non:** Plentziako Eleiz enparantzaz • **Noiz:** Irailak 6, domeka.

Jardueretatik hilaren 8an ospatuko den Ska Reggae gaua nabarmentzen da Skarnio, Bad sound system, Get back up eta Root diamoons taldeakaz.
► **VIII. Erdi Aroko Azoka.** Algortako Basagoiti etorbidean, San Nikolas, Biotz Alai, Getxo Antzokia, Tellagorri eta Satistegi plazak. Irailaren 18tik 20ra. 11:00-14:00 eta 17:00-20:00, zapatuan 23:00 arte.

BERANGO

► **Santo Domingo Jaiak.** Abuztuaren 1etik 5era idi probak, euskal dantzak Simon Otxandategi Taldearen eskutik edo sardina jana, besteak beste.
► **Bakailaoa pil-pilean, Gure Txoko “Begutxo”-ren eskutik.** Abuztuak 9, domeka. Elexalde.

PLENTZIA

► **Mozorro Lehiaketa.** Abuztuak 31, astelehena, umeentzako eta irailak 1, martitzena, nagusientzako.
► **San Antolin Jaiak.** Abuztuaren 28tik irailaren 3ra, nekazal azoka, entsalada lehiaketa...
► **II Euskal Jantzi Lehiaketa.** Irailak 1, martitzena.

LEIOA

► **Santimami eta San Bartolomeko Jaiak.** Abuztuan (ikus 17. orrian).
► **Ondizko Jaiak.** Irailaren 4tik 13ra bitartean.
► **Udondoko Jaiak.** Irailaren 10etik 12ra bitartean.
► **XLIX Bizkaiko Aurreku Txapelketa.** Irailak 6, domeka. 19:00etan.

URDULIZ

► **XVII. Baserritarren Azoka.** Abuztuak 22, zapatua.

GORLIZ

► **Andra Mari Jaiak.** Abuztuaren 5etik 9ra.
► **Urezarantzako Jaiak.** Abuztuaren 15etik 16ra.
► **Areazko gaztelu lehiaketa.** 8- 15 urte bitarteko umeentzat. Abuztuak 29, zapatua. 11:00etatik aurrera.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Gero arte, palistak!

Ekainaren 20an jokatu zen 2009ko San Nikolas plazako Pala Txapelketako finala; Iker Uriarte getxoztarra eta Eñaut Berasaluze berriztarra izan ziren txapeldunak. Aspaldi amaitu arren, garrantzitsua iritzi diogu txapelketako irudiak orriotara ekartzeari. Izan ere, Getxo Antzokiko lanak direla eta, datozen hiru urteetan ez da txapelketarik egongo. Batek baino gehiagok faltan botako du txapelketako giroa.

Argazkiak: **Ane Basagoiti**





Erromoko jaietan

bigantxen aurrean

Sanferminak amaitu arren, hainbat herritan oraindino adardunakaz entretenituko dira zaleak. Gustuko ez dituztenak aldiz, haserre bizian jarriko dira animaliakaz egiten dena ikustean. Gurean ere, behin baino gehiagotan erabili ditugu bigantxak giroa sortzeko; nahiz eta, azken urteotan, eskualdeko jai askotako egitarauetatik desagertu diren. Ondoko argazkian Erromoko jaietako aspaldiko giroa ikus dezakezu. Jende asko hurreratzen zen “etxe merke” ingurura, espektakuluaz goatzera. Baina, gutxi batzuk ausartzen ziren hesiaren beste aldera salto egiten. Zein erraza den gauzak “beste aldetik” ikustea.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Bazkalosteko gozotasunaren premian Zarauzko telefono zenbakia markatu dugu, penaz, gozo-usaina sudurreratu eta zapore ona dastatu ezingo dugulako. Alabaina, hariaren bestaldeko Eva Arguiñanoren (Beasain, 1960) berbak imajinaziorako bidaide harturik adurak bere bidea egin du. Karlos Arguiñano neba eta sukaldari entzutetsua hamaika aldiz hartu du ahotan gozogile ezagunak, baina bere ibilbidea ere ez da atzamar artean desagiten den horietakoa, besteak beste: gozogintzaren inguruko sei liburu plazaratu ditu, azkena apirilean argitaratutako *Atrevete con los postres*, eta hiruzpalau urte daroaz *Hoy cocinas tu* (LaSexta) saioa aurkezten.

Eva Arguiñano

Light osagai barik

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Bainet media**

—Sukalde kontuetan berandutxo hasi zinela esan daiteke.

—Aukeratu gabe hasi nintzen sukaldean. Idazkari-ikasketak egiten hasi nintzen, eta egia esan, ez nintzen estudiante oso ona; horregatik amak udarak Karlosekin pasatzera bidaltzen ninduen. Garai hartan Karlosek Zarauzko Golfeko sukaldea hartuta zeukan eta, nik hasieran harrikoa-eta egiten nituen, edozein gauza: hau garbitu, bestea jaso... Gero, barrako kaxan jarri ninduten kobratzen; geroxeago, tabernak bi barra dauzkanez, gazteentzako barran ibili nintzen: bokadiloak, freskagarriak e.a. zerbitzatzen. Eta horrela pixkanaka, neguan ikasten jarraitzen nuen. Ondoren, Karlosek, bere jatetxean hasi zenean, deitu zidan bere semeekin laguntzeko, haiek zaintzen. Taberna ireki zutenean barra txikian hasi nintzen lanean, zain zegoen jendeari koktelak, kafeak eta gauza horiek ateratzen. Baina jendearen aurrean oso gaizki moldatzen nintzen! Oso lotsatia naiz eta; gainera, ez naiz, edo ez nintzen, batere diplomatikoa, *“gustatzen bazaizu, ondo; eta*

ez bazaizu gustatzen, ondo ere”, beraz, jendearen aurrean egoteko... Egun batean erantzun oso txarra bota nion bati eta Karlosek esan zidan: *“bueno, neska, “se acaba”! Non nahi duzu kanpoan ala barruan?”*, eta nik *“barruan, sukaldean, mesedez!”*; horrela sartu nintzen sukaldera. Entsalada eta horrelakoekin hasi nintzen, eta hor nengoela, postreekin ari zena, gozogilea ikastaro bat egitera joan zen; eta Karlosek esan zidan: *“arreba, gozogintzara! Ez dago inor hor, eta zu jar zaitez!”*, eta sartu nintzen ideiarik eduki gabe!

—Eta gozogintzak harrapatu zintuen.

“Asko irakurriz ikasi nuen, probak eta probak eginez, asko eta asko zaborretara botatzen!”

—Baina, egia da, kostatu zitzaidala ulertzea nola doan kontua, zeren gaziaren eta gozoaren prestakuntza oso desberdina da. Niretzat gozoa errazagoa da, zailago den ospea dauka, baina nire ustez ez da zailago, desberdina da. Hori bai, gazitik gozora jo-

atea aldaketa nahiko handia da; aldiz, gozotik gazira egitea, niri errazagoa iruditzen zait. Asko kostatu zitzaidan, asko irakurriz ikasi nuen, probak eta probak eta probak eginez, asko eta asko zaborretara botatzen! Pixkanaka gustua hartu nion, ulertu nuen nondik nora zihoan kontua, nola egin...

—Sarri ahazten bazaigu ere, gozogintzan ere badira gozoak ez diren postreak, gozo dau-denak, baina gazi direnak, alegia.

—Arlo nahiko osoa da. Gozogintzaz hitz egiten dugunean, beti pentsatzen dugu bazkalostean jaten ditugunak baino ez

direla, eta ez da horrela. Jatetxe batean, gozogintzaz ari garenean, goiz-goizetik hasien zara: gailetak, moldeko ogia, kruasak e.a. prestatzen. Gauza asko sartzen dira, eta gauza asko neutroak direnak, hau da, badaukazu jartzea gozo zein gazi: hos-



topilak, ogia e.a. Hori guztia kontuan hartu behar dugu jatetxe batean ari bagara, eta horiez gainera, entsaladillak eta, beira-ara-setan azaltzen diren guztiak ere: oilasko entsaladillak, bokadiloak e.a. Horien guztien prestakuntzaren atzean askotan gozogilea dago. Gazia-gozoa-okinaren (eta izozkigilearen) artean bereizketa bezalakoa egiten da, baina jatetxe batean gu gara orkestra gizona, dena gainean daukagu eta denetarik jotzen dugu pixka bat, tiki-taka-tiki: txokolatea, izozkia, ogia...

—Orkestra gizona? Zeu, behintzat, andrazkoa zara!

—Orkestra-emakumea; baina arreta handiagoa ematen du gizonak hainbeste gauza batera egiteak! (kar-kar). Emakume izanda, ez hainbeste, arruntagoa zaigu!

—**Sukaldarietan eta gozogileetan ospea eta izarrak gizonezkoek lortzen dute; eta horien guztien artean, ematen du, zuk harrotasunez burua altxatzea lortu duzula.** —Burua altxatu duena...? Ez, ez da horrela; agian bai ezagutzen nautenen artean. Baina ez da ni bakarrik nagoelako. Hori gertatzen da, ez sukaldean bakarrik, orokorrean baikizik, lanpostu guztietan. Emakumezkook, lanaz gain beste lan edota eginbehar batzuk ditugu, oraindik “oinordetzaz edo” egokitzen zaizkigunak: etxeko martxa, seme-alaben ardura, helduen zaintza e.a. Lan asko eta handia dugu, orduan nabarmentzeko zailago daukagu, horretarako lanean ordu asko sartu behar direlako, horretan bakarrik guztiz kontzentratu egon.

—Amek sukaldari onenak izatearen berbazko aitorpena izan ohi dute, osteratizizko izardun aitortzarik ez dute izaten.

—Esan dizudanagatik da hori, profesionalki hori lortzea oso zaila delako. Ostalari-tzan, edota beste edozein lanetan, nabarmendu ahal izateko denbora asko behar dugu, eta dedikazio handia. Dedikazio hori eskaintzeko beste arlo asko beteta eduki behar ditugu, adib.: etxeko lanak, familiaren ardura eta adinekoen zaintza. Momentuz hori ez dugu beteta, are gehiago, oso zail dago horien ardura beteta edukitzea.

—**Halere, profesionalki honetan dabilen bakarra ez zarela jakinarazi duzu...**

—Nik uste dut hori aldatuko dela, aldatuko dela ez, aldatu egin behar da! Baina, ez da aldatuko egun batetik bestera, poliki-poliki baino, makinaria oso-oso mantso doa, eta ez da erraza. Halere, gazte jendea atzetik dator bultzaka, baina gauza bat da guk bultzatu nahi izatea, lana gustatzen zai-

“Emakumeak nabarmendu nahi badu denbora asko eta dedikazioa behar ditu, atzeko eginbehar guztiak beteta eduki”

gulako-eta, ordea, beste gauza bat guk beste ardurak beteta edukitzea, beste gauzak betetzeko beste norbait behar dugu, lasai egoteko... eta hori lortzea beste kontu bat da. Azken finean, agian, aukera egin behar dugulako ama izan edo... ez dakit, ez da batere erraza. Ez gure lanean bakarrik, baikizik eta denetan, berdin dit harakin ezaguna izan edota epaile, ministro. Orain horrelakoak gero eta gehiago ikusten dira: ordu piloa eta arreta handia eskatzen dituen lanpostua izatera heltzen den emakumezkoak nola antolatzen duen atzeko guztia; ala antolatuta dugu ala aukeratu behar dugu. —**Telebista, beti legez, lagungarri izan zaigu ezagutzero emateko.** —Telebistarena “pasada” da! Telebistan azaltzen gara eta jende pila batengana ailegaten gara, jendeak ezagutu egiten gaitu.

“Niretzat ez da itzala izan inondik inora; niretzat Karlos argia izan da, kristoren argia!”

Gainera, Arguiñano esanda, are gehiago! —**Gozogintza saio bategaz hasi zinen, orain sukaldaritza orokorrekoa duzu.** —Gazien sukaldaritza saioa eskaini zidaten, baina nik ez nuen den-dena gazien inguruan egin nahi izan. Orduan, erabaki nuen jaki gozo bat eta gero gazi bat tarteatzea; jendeak ni gozogintzatik ezagutzen

nau, eta bat-batean hori guztiz utzi eta gaziak bakarrik egitea gogorregia iruditu zitzaidalako. Gainera, gonbidatu batekin egiten dut saioa. Hasieran beldurra eman zidan, aurkezle moduan egoteak... Oso ezberdina da, baina oso gustura nago, oso! —**Telebistako sukaldeak beti txukun-txukun, garbi-garbi lotzen dira, amak beti dio: “horrek danak nork garbituko ete ditu!”**

—Kar, kar, kar. Grabatzen gauden bitartean, bai, jendea dago garbitzeko. Baina, begira, grabatzen dugun tokian, 6-7 sukaldari ibiltzen gara, eta garbitzaileek esaten didate Karlos eta ni garela txukunenak! —**Zinean ere egin duzu oraintsu kukuren bat, estreinatu barri den Sukalde kontuak** (Aizpea Goenaga) filman.

—Gauza berria izan da, ez nuelako ikusita nola egiten zen pelikula bat. Oso dibertigarria iruditu zitzaidan, esperientzia polita! —**Hainbatetan aipatu duzu Karlos (Arguiñano) neba, sukaldari ospetsua. Itzala ala argi-gidari izan zaizu?**

—Ez da izan itzala inondik inora; niretzat Karlos, argia izan da! Kristoren argia, bere ondoan oso gustura egoten naiz. Galdetzen didate: “Karlosek lagundu egin dizu ala ez?”, zalantzarik gabe lagundu egin dit, pila

bat! Telebistan banago, beragatik da; sukaldean banabil, bere eskutik sartu nintzelako da; argi daukat. Saio honetarako ere aurrena berarengana joan nintzen galdezka: “*Karlos, hau eskaini didate, zer iruditzen zaizu?*”, eta berak: “*joel ba, bada garaia!*”. —**Oraindik ere Arguiñanoren arreba legez baino ez zaituzte ezagutzen?**

—Denetarik dago. Badira Karlos ezagutzen dutenak eta ni Karlosen ondoan lan egiten duen haren arreba moduan ezagutu nautenak, eta gero badira nirekin lan egin dutenak eta horientzat Eva naiz, eta horiek galdetzen didate: “*Aizu, Eva, nola egiten da hau? Edo nola egingo zenuke zuk?*”. —**Sukaldaritza edota gozogintzako gida-libururen bat proposatuko zeniguke?**

—Euskaraz irakurtzea asko kostatzen zait, ez nago ohituta. Semeek esaten didate oso alferra naizela! Gehiena erdaraz irakurtzen dut. Sukaldaritzaaren alorrean, urtetan oinarritzko liburu sakratu bezala izan dudana liburua *La Marquesa de Parabere* izan da; andre bilbotar bat izan zen mende hasierakoa edo, eta bai gazi zein gozorako erabili izan ditut tradiziozko sukaldaritzari buruzko bi liburukiak, zoragarriak dira! —**Amaitzeko, gehienetan postreak izaten dira zerbait kentzekotan uzten ditugunak**

—Denetarik dago, ez pentsa! Badago jende asko lehen platera jaten ez duena, edo bigarrenaren elkar bana egiten duena postrea jan ahal izateko! Bai, benetan! —**Postrerako gomendioren bat?** —Egiteko ala jateko? —**Jateko! Zure gogokoena dena.** —Fruta daukaten postreak asko gustatzen zaizkit. Gazi-geza nahasketa ere bai, baita

“Bada txokolatea erregea dela dioena, niretzat oso ondo dago, baina errege dela esateko moduan, bada ez”

hotz-beroarena ere. Nahasketa, nahasketa dut gogoko. Askotan aukeratzen dudana hau da: azpian bizkotxo mehea, gainean izozki sakon-koipetsua, fruta-mazedonia gainean, gero zuringo harrotu pixka bat eta ondoren gainerre. Orduan geratzen

zaigu: gainerrearen beroa, izozkia hotz, eta fruta fresko. Oso-oso erraza jateko! —**Txokolaterik ez duzu aipatu, eta gozogintzan erregea dela esan liteke.** —Txokolatea ondo dago. Gero badaude “txokolateadiktoak”! Txokolateak mende-kotasuna sortzen duela egia da, nik entzunda neukan, baina ez ikusita, ez nuen sinesten. Eta orain dela urte bat edo lagun

batekin topo egin nuen jatetxe batean eta hiru txokolatzeko postre jan zituen, eta kristoren zaletasunarekin! Eta esan zuen: “ostras! egia da!”. Badago txokolatea erregea dela dioena, niretzat oso ondo dago, baina errege esateko moduan, bada ez. o



LAN ESKAINTZA

Publizitate salmenta eta sustapen lanetarako arduraduna

* eskualdea ezagutzea kontuan hartuko da

* irailean beharrean hasteko


* Bidali curriculum-a **publiuk@aldizkaria.biz** helbide elektronikora



Erretratuak

Asier Redondo Getxoko argazkilari gazteak bere lanaren zati bat oparitu digu opor aurreko azken alerako. Giza erretratuak zein animalienak aukeratu ditu UK-rako. Arimaren ispilua ei da aurpegia; triste zein pozik egon, aurpegia da salatzen gaituena. Animalien kasuan, emozioen jabe ez badira ere (edo hori esaten da behintzat), aurpegiak euren izaeraren inguruko istoriotxoak asmatzera bultzatzen gaitu maiz. Adibidez, Tor txakurrarena, emaztearengandik banandu eta gero AEBra joan zena. Edo Betty muskerrarena, nazioarteko antzerki konpainia bateko izarra izateagatik, aldizkarietako azaletan agertzen zena.

Argazkiak: **Asier Redondo**









OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf.94 460 70

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

Laburrei bultzada Urdulizen
Basartena tabernak antolatutako **II. Film**
laburren lehiaketako sariak banatu dira



On the line (Jon Garaño) filmako fotograma bat

Maiatzean hasi zen maratokia: bestek beste Madril, Kantabria, Galizia, Sevilla, Bartzelona eta Euskal Herriatik heldutako 192 film labor egon dira ikusgai Urdulizko Basartena tabernan, eta 12 finalistak, aurten lehenengoz, herriko Kultur Etxean eman zituzten ekaina amaieran. Basartena nagusi Patxi Lazkano lapiko eta saltsa askotako burrunztalia denak, aurten bigarrenaz antolatu du film laborren lehiaketa. Aurtengo ekitalditik izandako partaidetza bikaina nabarmendu du, *“bai kopuru aldetik, partaideen artean zine eskola askok, 22 bat, aurkeztu dituztelako haien lanak gure lehiaketara, baita kalitate aldetik ere, lan oso onak ikusi ditugulako”*. Lehiatu diren film laborren gaiei erreparaturaz, iazkoakaz alderaturaz gero, aurtengoak “triste samarragoak” izan direla antzeman du Lazkanok, *“iazkoek umorea gehiago lantzen zuten, agian krisiagatik edo izango da aurtengoen jarrera...”*.

Irabazleak ondorengoak izan dira: fikziozko atalean (600 euro) *On the line* (Jon Garaño; ingelesez, Bardeetan grabatua,

Kimuak egitasmoa (400 euro) *La Increible historia de un caballero sin sombra* (Jose Esteban Alenda) eta zine eskola (200 euro) *K-Markoleta* (Aitor Garcia eta Jon Manterola). Lazkanok jakinarazi duenez, “*hurrengo urterako diru-laguntza handiagoa batzen ahaleginduko naiz, sari handixeagoak edo beste atal batzuetako*

**«Urdulizko III. Basartenako
film laburren lehiaketa
lehenago izango dela
iragarri du Lazkanok»**

lanak saritu ahal izateko, adib. dokumen-
talak, umorezkoak e.a.". Horren albotik,
datorren urterako hobetzeko kontuak ere
badirela jakinarazi du Basartenako bu-
rruntzali nagusiak; izan ere, "Kultur
Etxeko emanaldietara ez zen jende larregi
hurreratu, alde batetik promozioan zelan-
bait kale egin dugulako eta bestetik, agian,
Sopelako jaiak ere bazirelako; horregatik
hurrengo urtean lehiaketa eta emanaldiak
apur bat lehenago egitea erabaki dut". ○

Ska-reggae jaialdia

Abuztuaren 8an izango da, **Erromoko** jaien barruan, Brixtonek antolatzen duen gaua



Irungo Moskun sustraitutako Bad Sound System taldea

Jai Batzordeagaz batera Erromo Brixton Records denda-zigiluak antolatzen duen Ska-Reggae Jaialdiari begirako gauak hamabigarren ekitaldia beteko du aurten. Abuztuaren 8an izango dute jamaikar sustaiaen zaleek hitzordua gaueko 09:30etik aurrera txosnagunean. Egitarauari begira, badirudi aurten ska doinuak izango direla nagusi; hala, hurrengoak dira jardungo duten taldeak: Skarnio talde galiziar konprometitu eta festazalea, Irungo Mosku auzoan jaioetako Bad Sound System, Bartzelonatik ska klasikoa, rocksteady eta ska-jazz doinuak hurreratu dituen Root Diamoons

(Armintzako Txapel Reggae Jaialdian ere entzun ahal izan genuen taldea), eta azkenik, beraien emanaldia oraindino guztiz ziurtatuta ez badago ere, Erromon *Get Back up!* lan barria aurkeztuko duen AEBko David Hillyard eta bere The Rocksteady 7 taldeak itxiko du egitaraua. Halere, aipatu legez, azken talde horren kontzertua oraindino zalantzan dagoela jakinarazi dute antolatzaileek. ○

Taldeen barri:
www.myspace.com/skarniogz
www.myspace.com/badsoundsystem
www.rootdiamoons.com
www.rocksteady7.com
www.brixtonrecords.com

diskoak

The Beatles eta ni
Juan Carlos Irizar
Piano Music



Oñatiarrak *The Beatles* eta *ni* izenpean kaleratu du lan barria. Izenburu deskriptiboa ipini dio diskoari. Izan ere, bertan dauden hogeita bat abestietatik erditik gora Liverpoolleko bandaren bertsioak dira. Lanerako lizarreko pianoa jo du talde batek lagunduta. Lehendik elizako pianojole izandakoa ere bada gipuzkoarra.

Sosegua
Garikoitz Mendizabal
Hiri Records



Sosegua da zestoarraren
lehenengo bakarkako lana.
Bertan, txistueren
gaitasuna erakutsi gura
izan du, batez ere, euskal
folkloreetik eta jai
egunetatik kanpo, piano
eta trikitiagaz uztartuz.
Laneko doinuak Josu
Elberdin, Xanti Ibarretxe,
Iñaki Zabala eta Kepa
Junkera musikariek sortu
dituzte.

World Champions
Eureka Hot 4
Gaztelupeko Hotsak



Bizkaiko laukoteak *World Champions* diskoa pelzatu barri du. Rock & roll beltza modu zuzenean jotzen duen taldea da, eta soul, punk, garai bateko rhythm&blues eta glam ukituak estiloak entzun daitezke. Bestetik, The Clash, Dirtbombs, AC/DC, Buzzcocks, The Meteors edota Lee Perry moduko talde eta artisten eraginak izan ditu.

diskoa >
Gariren 16 lore

Gariren disko barriaren aurrerapena egin du Erandioko Producciones Serrano sustapen agentziak. Aurrerapena dela diogu, udagoienara arte ez delako kalean egongo. Sustapen agentziatik jakinarazi dutenez Kongora, egitasmo humanitario eta pertsonala garatzera, joan baino lehenago, urte hasieran, utzi zituen Garik grabatuta lan barriko 16 kantak. Horiek ematen diote izena diskoari, *16 lore* batu dituelako: Hertzainak-en ibilbidean landa-tutako 3 eta bakarkako lanetan hazitako beste hiruna. Serranokoek adierazi dute-nez, “*atzera berrirako sotila bezain senti-korra aurkezten du, bere musika ibilbideari errepasoa eginez; bizitza bat, aktitude bat eta sentimendu bat 16 kapitulutan batzen dituen kontakizun gazi-gozoa da diskoa*”. Mami akustikoko lan honetan, besteak beste, Patti Smith abeslari ezaguna (“Nere gu berriarekin” kanta) eta Gose taldea (“Amets”) izan ditu lagun legazpiarrak. Disko barriaren aurkezpen bira abenduan hasiko dela iragarri dute.

Informazio gehiago: www.gari.tv

doinu sinfonikoa >
ltoiz suite

Aurreko UKn Itoiz taldearen gaineko dokumentalaren barri eman bagenizun, orain Mutriku-Ondarroako taldearen abeslariak prestatu dituen abesti batzuen bariazio sinfonikoak aurkeztu beharrean gaude. Juan Carlos Perezek sortutako kanten aldaketa sinfonikoa entzuteko aukera (abuztuak 22) Bilboko Aste Nagusian izango duzu, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ekimenez, eta joko dituzten kanten artean gaude: “Ezekiel”, “Maria Gora”, “Lau telatu” e.a.

*etorri
eta
ikusii!*

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleaz bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia

[liburuak]

50 urteko iraultza eta historia

Sergio Guerraren eta Alejo Maldonadoren
Historia de la Revolucion cubana saiakera

Moncada kuartela hartzeko saiakera, 1953ko uztailaren 26a, 26-7 Mugimendua, Mexikotik urtendako gerrilaridun Granma ontzia (1956), Sierra Maestrako prestaketa, Santa Clara... Fidel eta Raul Castro, Ernesto *Che* Guevara, Camilo Cienfuegos eta beste andana... 1959ko urtarrilaren 1ean Santiago de Cubara eta Habana iraultzaileen sarrera garaile... Geroztik aurtengoagaz joan dira 50 urte, bitartean: iraultza gauzatu, sistema ekonomiko, politiko, sozial eta kultural barriari forma kubatar-sozialista eman, AEBen blokeo inperialistari aurpegia eman, kapitalistei eta horien aldeko hedabideei aurre egin... Hamaika akats eta milaka irakaspen...

**«Txalaparta argitaletxeak
Kubaren gaineko bilduma
oparoa luzatu du»**

Baina hori baino gehiago da Kuba. Iraultzaren garaipenaren 50. urteurrenean eta hilaren 26a gertu dagoela, Txalaparta argitaletxeak (Gebara sailaren barruan) Karibeko irlarik handienari eta borrokalariai begirako bilduma oparoa luzatu du, Sergio Guerra kubatar eta Alejo Maldonado mexikar historialariak osatu duten *Historia de la Revolucion cubana* liburugaz (297 orri.; 18 euro). Saiakera histori-




Liburuaren azala

koaren generoan sailkatu dute liburua eta oro har lau atal nagusitan bana daiteke: laburpen historikoa, kronologia, bibliografia kritikoa eta hitz-atze irekia. Kubako iraultzaz zerbait dakienak badu non sakondu, batez ere hitz-atzearen mamia tiraka (gaur egungo egoera aztertuz sor litezkeen aukeren eta aldaketen gaineko hausnarketa egin baitute egileek), eta ezer gutxi dakienak ere, gitxienez, aurkituko du zer ezagutu beharko lukeen. Eta azken 50 urteotan etsaiek bere heriotza iragarri badute ere, Kuba iraultzaileak ez du esan azken hitza, emango ditu zeresana eta zer irakurri. ○

Informazio gehiago: www.txalaparta.com

liburuak



la dena. Komiki bilduma
Jon Mantisidor
Nontzeberri

Historia, umorea zein kritika egiteko erabili izan dira komikiak. Jon Mantisidorrek urteetan ezizen ezberdinak argitaratu dituen komikien bilduma plazaratu du. Politika, gizarte gaiak eta bestelakoak landu ditu; batzuk momentu oso konkretuetan, testuinguru berezian egindakoak dira.



Malenkonía arabiar bat
Abdelah Taia
Alberdania

Abdelah Taiaen lana itzuli barri du Patxi Zubizarretak. Gazte arabiarren istorioa kontatuko digu, gizartearen eta bere buruaren kontra borrokatu behar duen gaztearena. *“Jausi eta altxatu egiten den mundu arabiarren kulturari”* begiratzeko gonbitea.

[kirola]

Belaontziak datoz... badoaz

Proposamen barriak eskainiko dituzte
Itsasoratzea ekimenaren barruan



Urteeratarako topalekua Kapitaintzako pantalana izango da

Itsasoa eta itsasontziak gogoko dituenari eta oraindino poltsikoa hustu barik daukari, aisialdirako edota aisi-kirolerako proposamen interesgarria egin die udari begira Getxoko Turismo Bulegoak.

“Itsasoratzea” ekimenaren barruan, ohiko eskaintzari denboraldi honetan hainbat ekimen barri gehitu zaizkio, berbarako: “Nabigatzailearen ostegunak”, astegunetako urteerak merkeago eskaintzea, edota “Euskal Kostaldea” urteerak.

Hala, Nabigatzaileen ostegunak ekimena hurrengoan datza: egunero 17:00etan urteten diren (urrira arte) eta ordu biko iraupena duten belaontzi ibilaldia, lagun bakoitzeko 25 euro balio duena. Horrez gainera, astegunetako (astelehen-eguen) urteerak merkatu dituzte; horrenbestez, Abran zeharreko jardunaldi erdiko (10:00-14:00) ibilaldiak 40 euroko prezioa dauka eta Getxo-Gorliz arteko edota Getxo-Castro Urdiales egun osoko (10:00-19:00) joan-etorriak 65 eurokoa. Barrikuntzetan azkenekoa, Euskal Kostaldea izeneko proposamenak Getxo-Donostia-Getxo ibilal-

diak eskaintzen ditu, sei eguneko iraupena dauka eta urtereko eguna astelehenetan (irailaren 14ra arte; 10:00) izango da eta horren prezioa 695 eurokoa da (armoziak barne). Antolatzaileek diotenez, belaontzitik paisaiatzeko beste modu batera gozatzeko aukeraz gain, ekimen hori *“aukera ederra da nabigatzeko tekniken inguruan lehenengo pausoak eman gura dituenarentzat eta tripu-*

**«Astegunetan beherapenak,
Nabigatzaileen ostegunak,
Euskal Kostaldea urteerak...»**

lazioaren beharretan zuzenean parte hartu gura dutenentzat”. Bestalde, ekimenotarako erabiliko diren itsasontziek, oro har, 6-12 lagunentzako lekua dute (kabina bikoitzeak dira gehienak) eta guztira 15 ontzi egongo dira aurten erabilgarri.

Amaitzeko, ohiko eskaintza ere ematen jarraituko dute, besteak beste: belaontzien alokairu osoa (patroiagaz) eta kirol ikastaroak (bela arina, PER titulua e.a.). ○

Informazio gehiago: 94 491 08 00
www.getxo.net

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Ibon Garagarza eta Miren Begoñe Bilbao > Ziri-marra arte ikastegia

“Artea zer den ulertarazi eta zelan egiten den irakatsi gura dugu”



Ibon Garagarza Ziri-marra arte ikastegian

Artearen hezkuntzan esperientzia handia daukate Miren Begoñe Bilbaok eta Ibon Garagarzak. Uribe Kostako ikastetxeetan, zein Guggenheim museoak abian duen *Artea ikasbide* egitasmoan eskolak ematen dituzte. Horrek asko lagundu die *Ziri-marra* arte ikastegirako proiektua diseinatzerakoan. Orain arte lokala arte-eskola izan bada ere, Bilbaok eta Garagarzak aire barria eman, eta alde didaktikoa indartu gura dute.

—Apirilean hartu zenuten eskolaren ardura, zer asmogaz?
—Lokala handia da eta oso ondo atonduta dago; aukera asko eskaintzen du. Arte Ederrak ikasi dugu eta beti ibili gara hezkuntzan, Miren Begoñe batez ere. Gu heldu arte, eskulanak lantzen zituzten batez ere; denbora-pasa moduan planteatzen zituzten tailerrak. Guk alde didaktikoa indartu gura dugu; umeak ondo pasatzera etorriko dira noski, baina baita ikastera ere. Artea zer den ulertarazi eta zelan egiten den irakasten dugu. Gure abiapuntua artea da, hori da transmititu gura duguna.

—Erraza da umeak Artea bezalako kontzeptu sinbolikoa lantzea?
—Ondo enfokatuz gero erraza da. Harrituta geldituko zinateke egiten dituzten lanakaz. Uste duguna baino askoz gehiago egiteko gai dira. Egiten dutena gustuko badute, engantxatu egiten dira. Gainera, ondo sentitzen dira lan politak egiteko gai direla ikustean.
—Zein tailer egingo dituzue?
—Pintura, marrazketa, zeramika eta argazkigintza digitala landuko ditugu. Eskulanak egiteko aukera ere egongo da. 6-7 urtera arteko umeak denetarik egingo dugu;

hortik aurrera diziplina bat aukeratu beharko dute eta horretan zentratu. Beraiek erabakiko dute zein bide gurago duten. Arrastiko azken orduan, 18:30-20:00 ordutegian, helduentzako pintura eskolak emango ditugu. Eskolak euskaraz eta gazteleraz izango dira. Orain arte hurreratu diren ume gehienak euskaldunak izan dira eta horregatik ia beti euskaraz egin dugu. Ez dago inguruan eskolak euskaraz ematen dituen arte-eskolarik, eta gurasoek falta somatzen dute. Guk garrantzitsua deritzogu euskaraz behar egiteari. Agian, etorkizunean, ingele-sa sartzen saiatuko gara, baina hori ikusteko

«Umeak, uste duguna baino askoz gehiago egiteko gai dira»

dago oraindino.
—Eskolez gain, zerbait gehiago egiteko asmoa daukazue?
— Bai, urtebetetzeak ospatzen ditugu. Urtebetetze bereziak dira; lehendabizi beraiek aukeratutako tailerra egiten dugu. Ordu bi ematen dituzte horretan; ondoren, askari handia, gozo-eltzea eta jolasak prestatzen ditugu. Bestalde, Getxoko Euskara Zerbitzuagaz elkarlanean ari gara eta Areetako Ludotekan tailerrak antolatu ditugu. Hile-ro gai bat aukeratzen dugu eta hori lantzen dugu.
—Zelan erantzun du jendeak?
—Ondo, espero baino hobeto. Jende barri asko hurreratu zaigu apiriletik ona, horietako askok irailerako izena eman dute dagoneko. Pozik gaude, nahiz eta lan izugarria den erritmoa hartzea eta dena antolatzea.
— Zer egin behar da izena emateko?
—Eskolara hurreratu (Anboto 2, Getxo; sarrera, Aingeruaren Etorbidetik) edo gure telefono zenbakira (94 491 61 86) deitu besterik ez dute. ○

Bai Euskarari Ziurtagiria
balioa eta berrikuntza · valor e innovación

NEKATUR

DONOSTIA

ERANDIO

SOKOA

HENDAIA

IRUÑEA

IURRETA

IURRETA INSTITUTUA

GASTEIZ

MENDIAOPTIKA

1.600 entitate baino gehiago ziur daude

ziurtagiriaren elkartea
902 430 026
baieuskarari.org

Bego Torre > Maria Kristina

“Sekretuen balkoia da niretzat Maria Kristina”



“Urteko sasoiek bizitza daukate leku honetan”

Algorta etxe bat izango balitz Maria Kristina parkea bere balkoia izango litzateke. Algortako leku ederrena da nire ustez, nahiz bere kokapenagatik, nahiz nire bizi-penengatik

Edozein egunetan goizean goiz Maria Kristinara heltzen denean bat-batean itsaso eta zerua lotuta agertzen dira. Egutero Maria Kristinatik, itsasoak bere kolore desberdinak erakusten ditu: zuria, berdea, gris...kolore jokoa balitz bezala. Oparia da zentzumenentzat. Goizero Algortako biztanleek lo egiten duten bitartean, egunsentia agertzen da Maria Kristinan eta magiaz

betetzen da. Halaber, urte-sasoiek bizitza daukate leku honetan.

Udaberrian umetxoek lehen pausoak ematen ikasten zutenean, lehen hitzak, lehen joko-lagunak... Baina txikitako oroitzapenek ez ezik, nerabezaroak eta gaztaroak ere, badute lekua Maria Kristinan. Udako ilunsentietan, taldeka edo bikoteka pergolaren azpian beraien lehen musuak elkarri ematen dizkiete, lehen besarkadak,... baina Maria Kristina lekuko isila da.

Geroago, uda amaitu bezain laster, udazkena heltzen da, eta orduan Maria

Kristinak zaharrei eskaintzen dizkie eserlekuak. Han, Algortako nagusiek orduak pasa dituzte; itsasoari begira, etorkizunari begira edo lehenaldiari begira. Maria Kristinak bakarrik ezagutzen dituen oroitzapenakaz, eta ziur gordeko dituela negualdian, hurrengo udaberrira arte umetxoak barriz barreka agertzen direnerako. Maria Kristina, beti bezala, berriro prest egongo da haiek jasotzeko.

Maria Kristinak orain dela hamasei urte ama izateko bidean lagundu zidan; baina batez ere, izugarritzko leku polit honetatik bizitzako edertasuna baloratzen ikasi nuen; edozein sasoi bere lekua dauka. ○

Mamarro taberna

Herria berpizteko prest, barriro bueltan



Begoña Aurrekoetxea, Galder Urrutia, Enaitz Betanzos eta Arantza Goikoetxea, Mamarron

Gogoa ezinbesteko osagaia da edozein egitasmo aurrera atera ahal izateko. Eta ez da horrelakorik falta Mamarron. Begoña Aurrekoetxea, Galder Urrutia, Enaitz Betanzos eta Arantza Goikoetxea aspaldiko lagunak dira. Apirilean, Mamarro tabernako jabeagaz berba egin eta gero, barriro zabaltzea erabaki zuten. Pintxoak, kafeak, garagardoak, irabiaki naturalak eta gainontzeko lokaletan aurki daitekeena eskainiko badute ere, taberna baino zerbait gehiago izatea gura dute. Algortako giroa berpizteko ahaleginak egingo dituzte: “*Gainontzeko tabernariakaz ekimen bateratuak egin gura ditugu, herria animatzeko*”.

Izaera ezberdineko ekimen kultural eta ludikoek lekua izango dute Mamarron. Hasteko, udako barikuetan, “Mojito jai” egiten hasi dira: “*Uztailaren 3an egin genuen lehenengoa eta arrakasta handia izan zuen*.”

200 mojitotik gora banatu genituen”. Udako gau epelez gozatu ahal izateko, terrazak atondu dituzte. Barruan ere, ez da girorik faltako: “*Argazki erakusketak egingo ditugu. Inguruko argazkilarien eta artisten proposamenak ondo etorriak dira*”. Horrez gain, bideo emanaldiak, magia erakustaldiak, kontzertuak... ideiak ez dira falta. Orain arte, interneteko sare sozialak erabili dituzte antolatutako enbarri emateko: “*Jendeak ondo erantzun du; betiko lagunaz gain, aurrepegi barriak ikusi ditugu*”. Jai pribatuak ere antola daitezke: “*Lokal handia da eta aukera asko ematen ditu. Orain arte egin dituzten jaietatik pozik atena dira. Lagunak batu, gustuko musika jarri eta gura duten bitartekoak (karaokea, proiektzioak...) erabiltzeko aukera ematen diegu*”. ○

Basagoiti Etorbidea 76, ALGORTA
Tf. 676 01 14 20



JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



ARTAZA ETXEA

jatetxeaa

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA

KONTXI ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Gozatu
jaiak!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



galdaretxe

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Toponimoa > Maria Kristina

Maria Kristina (plaza):

Plaza eta plazatxoa, bigarren XX. mendeko politikari hertsiki lotuta. Errepublikak gurago izan zuen erreginarene ordez udal langile zintzoa izan zen F. Larrondo, baina matxinatuek boterea eskuratu bezain laster, monarkia garaira itzuli zuten izena. Zer esanik ez, Errepublika garaian demokratikoki hautatutako udalak udal idazkariaren izena zen Florentino Larrondo gurago izan zuen, baina diktadura garaian Maria Kristina izena eman zioten barriro.



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)

Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1

Tf. 94 430 22 13

GETXO

Telletxe 13

Tf. 94 460 02 88

ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.

Algorta

**Tf. erreserbak: 94 460 64 13*

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Ikusten da bai, oporrak heldu zaizkizula eta guztiz alfertua zabiltzala. Sofan ematen duzu egun guztia, eta hondartzara joateko ere ez zara mugitzen. Osasuna kalteku gura ez baduzu, gehiago mugitzen hasi beharko zara.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Jai denboraldia hasi da eta ez zara etxean lotuko. Lehenengo Leioa eta Sopelakoak izan ziren, orain, Astrabudua, Erromo, Portu Zaharra... denetara joan gura duzu, baina inoiz atsedean ere hartu beharko duzu, ezta? Ondo pasa!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Bikotekidea bilatu guran, eta badirudi gero eta jende gutxiagok gura duela harreman serioetan pentsatu. Lasai, garai ona da zure gurariak betetzeko, ez etsi! Uste baino lehen zure atea joko duen norbait azalduko zaizu eta.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Ipar Euskal Herrietik bidaia egingo duzu txirindulagaz beste hiru lagunegaz eta istripu txikia izango duzu. Ez da ezer larria izango, baina hobe kontu handiagoz ibiliko bazina.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Zure lagun bategaz berba egin eta gero, kezkatuta ibiliko zara konturatzen zarenean ez dela batere zintzoa izan. Lagundu gura badiozu, tentuz ibili eta saia zaitetz gauzak apurka esaten.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Nekatuta ibiliko zara lan kontuengatik batez ere. Horregatik, zaintzen hasi beharko duzu, bestela okerrera egingo duzu eta osasun arazoak ere izango dituzu. Gauzak patxadaz hartzen has zaitetz berandu izan baino lehen.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Miresten duzun pertsona horri buruzko txutxu-mutxuak entzungo dituzu eta ez zaizkizu batere gustatuko. Argi ibili, zuri ere informazioa atera guran ibiliko dira gaizki-esaka dabiltzan horiek, eta ez da onerako izango.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Aspaldi honetan estresatuta ibili zara, hori zure osasunean nabarituko duzu. Lehenbailehen zeure burua erlaxatzeko metodoa bilatu beharko duzu. Agian Tai Chi edo kirol apur bat egitea ez legoke batere gaizki.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Inoiz baino argiago ibiliko zara: erabakiak hartu, lagunarteko bazkariak antolatzeko eta oro har laneko gauzetarako. Aprobetxatu momentua, garai batean egin gura zenituen gauzak egiteko oraintxe da une egokiena.

META



(Irailak 17 urriak 16)

Beharrea zaudenean inspirazio falta duzu, eta lan guztia pilatzen ari zaizu. Ea lehenbailehen hankak lurrean jartzen dituzun, gorriak ikusiko dituzu bestela!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Hainbeste denbora irrikan udari ixaroten egon ostean, bat-batean dena ilun ikusiko duzu eta burua altxatu ezinik ibiliko zara. Ez geratu etxean eta saiatu lagunakaz irteten.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)


Panorama ederra izango duzu etxean. Zure goiko auzokideak obretan hasi dira eta goizeko zortzietan zarataka hasten dira. Oporrak hartzeko desiratzen zeunden, baina ez dizute bakerik emango.




irratia 108 fm

www.koskairratia.com

[komikia]



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Antolatu. Eraitza. 2. Aski. Nasa, moila. 3. Emakume izena. Guraso arra. 4. Galdetzaile bat. Adorea, kementa. 5. Erabateko nahasmendua. 6. Elkartea. 7. Xumeak, umilak. Erdi, hitz elkarketan. 8. Bi. Apala. 9. Juzku. Pluralean, txori handi mota. 10. Gai itsaskorra. Mozkurturik, hor-diturik.

Goitik behera

1. Hitzez adierazia. Kainen anaia hura. 2. Gizon izena. Tabakoa erretzeko tresna. 3. Donostiako auoza. Alderantziz, gorotza. 4. ... gabe, eten gabe. Pilota handia. 5. Haize indartsuko ekaitza. 6. Usoaren ume. 7. Eskumutur. Zenbaki erromatarretan, 1000, 1 eta 500. 8. Ipar Euskal Herrian, gona. Dei eginez ari da. 9. Ugatz. Uhartean. 10. Atabala, kontsonanterik barik. Mendiko atea.

Soluzioa

A	N	A	D	E	A	K	A	L
K	A	K	I	M	I	A	P	E
A	L	I	M	U	O	K	I	B
T	R	E	K	A	L	A	P	A
A	I	D	I	A	N	A		
		A	S	A	B	A	N	A
A	I	A	R	K		R	O	N
A	T	I	A	A	I	A	M	A
A	I	A	K	A	A	M	A	S
A	T	Z	U		T	A	R	E

asmatu eta irabazi > lagun birentzako bazkaria



Nor da?

- Orain gutxi zendu bada ere, gogoan izango dugu betiko
- "Everybody dance now"
- Zuri-beltzean dantzan ibili da

> Aurrekoaren erantzuna: Alberto Iñurrategi

> Irabazlea: **Izaro Muñarriz Saratxu (Getxo)***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean degustazio menua zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia

Usategi parkea z.g. **Algorta**
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



PEDRO M^a ROYO "NAVARRITO" K. UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

PORTU ZAHARREKO JAIETAN, 1941

Auzoko jaiak zirela eta, lagunarteko otordua egiteko asmoz, gure lagunak, denak Portukoak, goizaldean abiatu ziren txalupaz Azkorriantze. Batek esan dit binaka hiru txalupatan joan zirela, baina beste batek banaka, sei txalupatan eta apustua egin zutela ea nork gehien arrantza egin. Txipiroiak, kabrak,....baldekada harrapatu eta etxera. Ordu batzuk geroago hor ditugu ardo garrafoiak eta zahatoak lagunduta zer edo zer jaten, baina benetako oturuntza "Benita" tabernan (gaurko "Portu Zaharra" taberna) gauez egin zutena. Hantxe prestatu zieten, eta oso ondo prestatu gainera, eurek goizean arrantzatutakoa.

Zutunik: Juan Martinez "Morrongo", Pedro M^a Royo "Navarrito", Jose Manuel Amutio "Tolete", Ignacio Sanz.
Makurtuta: Serafin Galin, Valero.

MAIALEN VELASCO > aktorea

“Zumarragako familiaren baserrian daude txikitako oroitzapen guztiak”

Testua: **Ainhoa Lores**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Ameslaria eta alaia.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Amélie-n, pertsonaia asko gustatzen zaidalako eta oso ameslaria delako. Juana *la locarena* egitea ere oso gustuko nuke.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Mediku aritzea edo moda eta diseinuaren kontuetan lan egitea.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?
Zumarragako baserria. Bertan pasatzen genuelako uda eta haurtzaroko oroitzapen guztiak han dauzkadalako. Libre sentitzen nintzen eta nahi nuena egin nezakeen. Ez zegoen gauza handirik, baina zoriontsu nintzen.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Alde batetik, dena sinesten dudala eta bestetik, batzuetan dena egin gura dudala; asko kostatzen zait gauza bat aukeratzea.

Aitor dezakezun bizio bat.
Interneten saltseatzea gehien bat.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
AEBra. Ez dut hango bizimodua gustuko, baina deigarria egiten zait gauza asko kopiatzen diegun arren, oso desberdinak gara.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Dena barkatzen dut; ez naiz gorrototsua.

Zein da zure ametssetako bat?
Amodio edo drama pelikula bat egitea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
Lapurdiko hondartzaren bat. Itsasoarekin lasai sentitzen naizelako. ○

LABURREAN— Txikitatik hasi zen Maialen Velasco, Goenkaleko Ikerne pertsonaia, interpretazioaren munduan. Hamabi urte baino ez zituen ikastolan antzerkian hasi zela, Euskal Telebistako makina bat telesailetarako castinga egin zuenean; proiektu hori burutu ez zuen arren, urte batzuk beranduago, donostiarra *Jon eta familia* telesailean aritu zen. Urtebete beranduago, *Balbemendin* ere figurazio lanak egin zituen, baina medikuntza ikasketak zirela eta interpretazioaren mundua alde batera utzi zuen, Donostiara itzuli zen arte. Orduan, agentzia batean izena eman zuen, eta iragarki batzuetan agertu ostean Goenkalerako proba egin, eta Ikerne pertsonaia antzezteko hartu zuten. Azken hau orain arte eginiko antzezlan serioena dela esan daiteke.

Eroan euskaraz

Rist-rast irabazi!
Euskaraz erosten duzun bakoitzean
“rist-rast irabazi” bat eska ezazu eta...
opari hau zeuretzat!

Erosketa-poltsa

Eroan euskaraz





NAZIOARTEKO ARGAZKI JAIALDIA. IRAILAK 10 - URRIAK 11 2009
FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOTOGRAFIA. 10 SEPTIEMBRE - 11 OCTUBRE 2009

antolatzailea / organiza



babesleak / patrocinan



laguntzailea / colabora

